

Kultura

Khuzayma sabel-dantza taldeak 'Gaia' ikuskizuna eskainiko du bihar, San Agustin kultur gunean > 13



Sokatira 'made in Taiwan'

Taiwango sokatira selekzioa Durangaldera etorri da Abadiño taldearen laguntzagaz euren teknika hobetzera > 15

Iban Gorriti

Trenbideko lur eremuan elizarik ez eraikitzea onartu du Durangoko Udalak > 3

Trenbidea dagoen lursaileko 1.000 metro karratu erlijio ekipamenduetarako erabiltzea aurreikusi zuten 2006an. Bilboko Gotzaindegiak eta Jaurlearitzak eliza bat eraikitzea adostu zuten, eta sasoi hartan udalak hitzarmena onetsi zuten. Bilduk eta Aralarrek mozioa aurkeztu zuten martitzeneko udalbatzarrean, gune horretan zer eraiki hirigintza batzordean aztertzeko. Ekimena aurrera atera zen PSE-EEren babesarekin, EAJren abstentzioarekin eta PPren kontrako bozkarekin.



ESKALADA • BOULDER • MENDIA • TRAIL RUNNING



Tel.: 946 550 455
Santa Ana plaza
DURANGO

Atxartemendikodenda@gmail.com

Zaldibar > 2

Lan istripua salatzeko elkarretaratzea udaletxe aurrean

Abadiño > 2

II. Baserri Egunak kontsumo arduratsuaren alde egingo du

Atxondo > 6

Anbotopeko husteko demanda atzera bota dute auzitegiek

Nanuk > 6

Negoiazioa akordio barik amaitu dute Nanuk enpresan

Herririk herri

> **ABADIÑO**

II. Baserri Eguna: kontsumo ohitura arduratsuen alde

Birziklapenari zein autokontsumorako ortuei buruzko tailerrak eskainiko dizkiete bisitariei

> **ITSASO ESTEBAN**

Abadiñoko Udalak eta Mendiolako Alluitz Natura enpresak antolatuta II. Baserri Eguna. Iaz lehenengoz antolatuta zuten ekimenaren arrakastak bultzatuta, askotariko jarduerak eskainiko dituzte, irailaren 29an, Traña plazan. Abeltzaintzaren inguruan ardaztu zuten lehenengo edizioa, eta artzaintza kalera atera zuten. Patxi Solana Alluitz egitasmoaren bultzatzaileak azaldu duenez, nekazaritzan oinarritutako dute aurtengo egitaraua.

leak azaldu duenez, nekazaritzan oinarritutako dute aurtengo egitaraua.

Kontsumo arduratsuen inguruan kontzientzia zabaltzea izango da aurtengo helburua: besteak beste, sasoiko eta gertuko ortuariak kontsumitzearen garrantzia azpimarratuta. Ingurugiroagaz adeitsuagoa den, eta errealitate sozioekonomikoa kontuan hartzen duen bizimodu bultzatu gura dute.



Abeltzaintzaren inguruan ardaztu zuten iazko edizioa, eta artzaintza kalera ateratzeko hainbat ekimen antolatu zituzten.

Birziklapenari zein autokontsumorako ortuei buruzko tailerrak eskainiko dituzte, besteak beste, Traña plazan. Umeei, esaterako, taloa txokolateagaz egin, plastilina ekologikoagaz jolastu, eta paper birziklatuaz

saskiak egiten ikasi ahalko dute. Gainera, artzainaren bizimodu bertatik bertara ezagutzeko aukera izango dute, Alluitz Naturaren egoitzara bisita eginda.

Iazko ekimenaren lehenengo edizioak erakarritako jende

andanak antolatzaileen aurreikuspenak gainditu zituen. Sortu zen giroaren erakusle, txapel jaurtiketa lehiaketa izan zen: 70 lagunek parte hartu zuten. Aurten txapelketaren bigarren edizioa ospatuko dute.

Udalbatzarra ez da ados jarri bake-epailea izendatzeko

> **I.E.**

Herri mailako auzi zibiletan epaile lanetan jarduteko funtzioa duen herritarra hautatu behar zuten Abadiñoko udalbatzarrek, martitzeneko osoko bilkuran. Lanpostu horretarako hiru hautagai aurkeztu direla azaldu zuen Jose Luis Navarro alkateak, eta hiru horietariko bat proposatu zuten kargua hartzeko, aukeraketaren arrazoiak emanez.

Hautaketa prozesua egiteko moduagaz ez zetozeela bat azpimarratu zuen, aldiz, Aitor Azueta Bilduko bozeramaileak, eta "aukeraketa oinarri objektibotant sostengatu" behar litzakeela azpimarratu zuen: "Ez dugu uste inor garenik boto pertsonalagaz inor kontratatuzeko".

Izendapena egiteko beharrezkoa den gehiengo absolutua ez zuten lortu gobernauk

Bozketan abstenitu egingo zela aurreratu zuen, bestalde, Etxebarria EAJko zinegotziak.

Postu hori udalek hautatu behar izanagaz ez dagoela ados azaldu zuen Jose Luis Navarro alkateak ere. Horrela, izendapena egiteko beharrezkoa zen gehiengo absolutua lortu ez zenez gobernuaren proposamenak, bertan behera geratu zen bake-epailearen hautaketa.

Eskolako obren atzerapenaz azalpenak eman dituzte plenoan

> **I.E.**

Udalbatzarreko galderen tartean aipatu zuen Saioa Zuazubizkar Bilduko zinegotziak, eskolako lanen atzerapenaren gaia. Jolastokiko aterpea oraindik ere ipini barik egotea, eta obrako materiala jolastokian edukitzea "umeentzat arriskutsua" dela azpimarratu zuen Zuazubizkarrek. Enpresa eraikitzailearen eta aterpearen fabrikatzailearen arteko arazoek atzeratu dute lanen amaiera, Navarro alkatearen arabera, eta irailaren 30ean ekin goi diote aterpea muntatzeari.

Haurreskoletan izena emateko, urriaren 10era arteko epea

> **I.E.**

Abadiñoko Udalak ohar eta bando bidez jakitera eman duenez, urriaren 1etik 10era arteko epea egongo da, Zelaietako eta Traña-Matienako haurreskoletan izena emateko.

Ikasturte honetan haurreskola zerbitzua eduki gura duten 2012 eta 2013an jaiotakoei zuzenduriko deialdia da udalak luzatu duen hori.

Izena emateko orriak Zelaieta eta Traña-Matienako haurreskoletan bertan eskuratu daitezkeela eman du jakitera Abadiñoko Udalak.

Batukada taldera batu gura duten emakumeei zabalik

Deialdia luzatu die Batugara batukada taldeak Abadiñoko eta Durangaldeko emakumeei

> **I.E.**

Perkusioa jotzen duten emakume taldea da Abadiñoko Batugara taldea. Musikaren bitartez, aldarrikapena eta gozamina uztartzeko sortu zuten taldea. Urriaren 11ra arte eman daiteke izena, taldera batu gura dutenei zuzenduta sortu duten ikastaroan parte hartzeko.

Urriaren 11ra arte eman daiteke izena taldera batu gura dutenei zuzenduta sortu duten ikastarorako

Abadiñoko Udaleko Berdintasun sailak 2010-2011 ikasturtean antolaturiko batukada ikastaroa izan zen, gaur, Ba-

tugara taldea denaren hazia. Adin guztietako emakumeek osaturiko taldeak indarra hartu du ordutik hona, eta Batugara emakumeen batukada elkarteak sortu zuten. Zelaieta eskolako patioan egiten dituzte entseguak, eta irteerak ere antolatu izan dituzte.

Zelaietako Txanpota mediatekan, Traña-Matienako Errota kultur etxean, edo batugarabatukada@gmail.com helbidera idatzita eman daiteke ikastaroan parte hartzeko izena.

Abadiño zein Durangaldeko emakumeentzako eskaintza da batukada ikastaroa, eta parte hartzeko ez da ezelako aurrez-gutzarik behar. Urriaren 7an, 19:00etan, Txanpota kultur etxean egingo dute informazio zehatzagoa emateko batzarra.



Duela hiru urte sortu zuten batukada taldea.

> **ZALDIBAR**

Langile bat hil zen eguaztenean, Goierri auzoan lanean zebilela

> **ITSASO ESTEBAN**

51 urteko langile bat hil zen eguaztenean, Zaldibarko Goierri auzoan jazo zen lan istripuan. Eusko Jaurlaritzaren Laneko Seguratasunerako Osalan erakundeak ikerketa abiatu du, lan istripua zelan gertatu zen argitzeko.

Eguaztenean, 16:30ean jazo zen istripua, 51 urteko langile portugaldarra Goierri auzoko baso bide batean, Maderas Urien enpresak azpikontrataturako lanetan zebilela: Eusko Jaurlaritzaren Seguratasun Sailak azaldu duenez, makina batek buruan kolpatu zuen langilea.

Elkarretaratzea gaur

Hildako langilearen familiar-teko eta lagunei elkartasuna adierazteko, eta "gertakizun hori onartezina" dela salatze-ko, kontzentrazioa deitu dute LAB, ELA, STEE-EILAS, HIRU eta EHNE sindikatuek, gaurko. Zaldibarko udaletxeko plazan batuko dira, 12:30ean, *Lan istripu gehiagorik ez! Prekarietatea hiltzailea* lemagaz. "Lan istripuen sortzaile garrantzitsuena prekarietatea" dela salatuko dute.

Irailaren bost lagunek galdu dute bizia Euskal Herrian gertaturiko lan istripuetan. Urtarriletik hona, 32 langile hil dira Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, eta Nafarroan gertatu diren lan istripuetan.

> DURANGO

Trenbideko lurretan elizarik ez eraikitzea onartu du udalbatzak

2006an onartutako berrizte plana aldatuko dute; batzordean landuko dute gaia



Trenbidea dagoen lursailean, 1.000 metro karratu erlijio ekipamenduetarako erabiltzea aurreikusi zuten 2006an.

Eremu librean zer egin aztertzen dabilta

Trenbidea lurperatzean libre geratu diren 62.000 metro karratuetan zer egin zehaztu zuten *Durango Operazioa* lez ezaguna den berrizte planagaz. Horien artean, 14.000 metro karratu etxe dorreak eraikitzeko izango ziren, 9.500 zerbitzuetarako, 1.000 erlijiorako,

eta 37.000 gune librerako –parkeak, berdeguneak...-. Gune libre hori diseinatu barik utzi zuten, eta Eusko Jaurlaritzaren menpeko ETS enpresak bertarako proposamenak egiteko eskatu zion udalari. Irailan amaitu da aurkezteko epea, eta EH Bilduko zinego-

tziek bakarrik aurkeztu dituzte, euren azaldu dutenez.

Arkitektoaren eta ETSko teknikoen hasierako onarpena jaso dute euren ekarpenek, eta zirriborroa eginda dago. Aire zabaleko anfiteatro bat, skate gune bat eta parke bat egitea proposatu dute. Jaietako txosnak eta barrakak ere bertan egokituko lirake.

Planaren gainerako atalek geldituta jarraitzen dute, eta erlijioarena aldatu egingo dute.

Komertzio berrien tasa %75 bajatzea eskatu du PPK

PPk adierazi du EAJk tasa eta zergen igoera ezarri gura duela, eta hamabost zuzenketa aurkeztu ditu

> M.O.

Durango Udala hasi da 2014rako ordenantza fiskalak lantzen. PPK prentsa ohar bidez adierazi du EAJk tasa eta zergen igoera ezarri gura duela, eta horregatik hamabost zuzenketa aurkeztu dituela. Horien artean, komertzio edo negozio berriak zabalteko tasa %75 bajatzea proposatu du. “Udalak aktibitate ekonomikoa sustatuko duten zergak onartzea gura dugu”, esan du Juan Jose Gastañazatorre zinegotziak. Gainera, langabetuak eta baliabide gutxiko biztanleak

laguntzea ere izan beharko litzateke zergen helburua, PPKo kidearen ustez.

Prozesua hasita

Ordenantzak zehazteko prozesua hasi da udalean, baina oraindik ez da udalbatzarrerara ailegatu. PPK dioenez, %2,2 igo gura ditu tasak gobernu taldeak. “Ez dakigu PSE-EEgag egindako fiskalitate akordioak norabidea markatzen duen, baina EAJk zergak igoko ditu berriro, eta txartoen pasatzen dabiltzanei egoera gaitzagoa ipiniko die”.

Etorkinentzako euskara ikastaroa hasiko da urriaren 8an

> A.B.

Etorkinentzako euskara ikastaroa hasiko dute aurten ere, Durangon. Urriaren 8tik abenduaren 17ra bitartean, 60 orduko ikastaroa izango da. Interesa daukanak, urriaren 3a baino lehen eman beharko du izena.

Astelehen, martitzen eta eguaztenetan garatuko da ikastaroa, 19:00etatik 21:00etara. Udalaren helburua, integrazio prozesuan laguntzea da, prentsa ohar bidez azaldu dutenez. AISA izeneko programa hori 2005ean hasi zuten udalak.

> MARKEL ONAINDIA

Udalbatzak 2006an hartutako erabaki baten kontra egin zuten martitzenean. Trenbidea dagoen lursaileko 1.000 metro karratu erlijio ekipamenduetarako erabiltzea aurreikusi zuten orain zazpi urte, baina egitasmo hori bertan behera geratu da. Eusko Jaurlaritzak eta Bilboko Gotzaindegiak eliza bat eraikitzea adostu zuten, eta sasoi hartan udalak hitzarmena onetsi zuten. Bildu eta Aralarrek aurkeztutako mozioa PSE-EEk ere babestu du; EAJ abstenitu egin da, eta PP kontra agertu da.

Trena lurperatzeagaz batera 62.000 metro karratuko eremua hutsik geratu da. 2006an onartutako berrizte planaren arabera, etxeak, Euskotrenen egoitza ofiziala eta eliza bat eraikiko lirake bertan. *Durango Operazioa* lez ezagutu zen. Bada, plana aldatuko dute, elizarik ez eraikitzeko. Mozioak dioen lez, orain hirigintza batzordean aztertuko dute zer egin ahal den bertan. Jon Bingen Landabideak (Bildu) partaidetza prozesu bat garatzea proposatu dio udalbatzari. Azaldu zuten ez dutela ulertzen estatu laiko batean zergatik gorde behar den eremu bat elizarantz, eta jeltzaleak kritikatu zituen: “EAJ elizaren eskutik doa”. Dani Maezturen (Aralar) ustez ere, erlijioa ez da lehenta-

suna: “Durangoko beharrianak ikusita, kulturarako, gazteentzako edota etxeak egiteko erabili beharko litzateke”. Gogoratu zuten gotzaindegiak badauzkala Durangoko eraikin batzuk jabetzan, eta Salesen edo Santa Susanako komentuak hutsik daudela kritikatu zuten. Bere iritziz, EAJk ez zuten ondo egin eremua erlijiorako onartzean: “EAJk interes pribatua interes publikoaren aurretik ipini zuten”. Pilar

Eusko Jaurlaritzak eta Bilboko Gotzaindegiak eliza bat eraikitzea adostu zuten

Riosek (PSE-EE) bat egin zuten mozioagaz: “Beste ekipamendu batzuk beharrezkoago dira”.

Goiztidi Diazek (EAJ) euren kontra esandakoak hartu zituen berbagai: “Gu ez gara eliza katolikoaren bozeramaile”, eta lursaila berrizteko planaren inguruan batzordean eztabaidatzea proposatu zuten. Juan Jose Gastañazatorrek (PP) azaldu zuten lurra Eusko Jaurlaritzarena dela, eta ez zuten ondo ikusi mozioa udalbatzarrean lantzea. Bildu, Aralar eta PSE-EEk gogoratu zitoten lur hori udalaren esku geratuko dela.

> MALLABIA

Udaleko ikastaroetan izena emateko epea zabalik dago

Kirola, euskara, musika zein dantza praktikatzeko ikastaroetan izena eman daiteke dagoeneko

> JONE GUENETXEA

2013-2014 ikasturtean Mallabiko Udalak antolatzen dituen ikastaroetan izena emateko epea zabalik dago.

Itsaso Praderak spinning, aerobic, eta gimnasia emango ditu. Iratxe Uribelarreak gazte eta helduei zuzendutako abesbatzen ardura hartuko du aurten ere. Igone Amestik abestiak eta gorputz adierazpena ardatz dituen ikastaroa antolatuko du sei

urtetik aurrerako umeentzako. Euskal dantzak ikasteko aukera izango dute lau urtetik gorakoek. Adolfo Jainagak soina eta panderoa jotzen erakutsiko du, eta Yolanda Napalek yoga ikastaroa eskainiko du.

AEKrekin ikasturte honetan euskara ikasi gura dutenek kultur etxean eman dezakete izena, eta informatikan interesa dutenek KZgunean eman dezakete izena.

GALLASTEGI

www.gallastegiharategiak.com 1955ean sortua



EUSKO LABEL

Baimendutako harategia
Euskal Okela
Carnicería autorizada

Antso Estegiz, 1
946 812 247
48200 DURANGO

Zalduasolo, 8
946 827 038
48250 ZALDIBAR

katerin ardoak

iñaki uribe



saltsan

Eguneko menuak - Asteburuetako menu bereziak
Delikatessena - Ardoteka

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan.com

> DURANGALDEA

Eskualdeko ondarea erakusteko bisita gidatuak eta berbaldiak

Durangaldeko zortzi herririk bat egin dute Europako Ondare Jardunaldiekin: Durango, Berriz, Elorrio, Garai, Iurreta, Mañaria, Otxandio eta Zaldibar

**> JONE GUENETXEA**

Atzokoa biharko izenburuagaz Bizkaiko Aldundiak bultzatutako Ondarearen Europako Jardunaldietan parte hartuko du Durangaldeak. Durangoko egitaraua turismo bulegoak prestatu du. Gerediaga Elkarteak eta Urkiola Landa Garapenak berriz, gainerako herrietako ekitaldi sorta koordinatu dute: Berriz, Elorrio, Garai, Iurreta, Mañaria, Otxandio eta Zaldibar. Antolatzaileen esanetan, "helburua da, normalean itxita egoten diren monumentuak jendeari erakustea edo irekiak egoten diren jarduerak egitea". Ekitaldietan parte hartzeko izena eman beharra dago Durangoko Turismo Bulegoan (946033938) eta Gerediagan (946818066).

EGITARAUA**OTXANDIO**

-Urriak 4, Plaza nagusia: euskal

agora. Hitzaldia (Iñaki Uriarte)+diaporama

-Urriak 5, Hiribildua biltzen

bisita gidatua

-Urriak 26, Herritarren espazio

publikoa. Berbaldia

GARAI

-Urriak 6, Momoitoko San Juan

nekropolia, bisita gidatua+hitzaldia

ZALDIBAR

-Urriak 12-13, Auzolandegia

Zaldibarko dorrean

MAÑARIA

-Urriak 19, Harginak: historia idazteko

modu bat. Berbaldia (M.Campo

+erakustaldia (K. Aranguena) +bisita

gidatua+organo kontzertua (J. Ruiz)

IURRETA

-Urriak 20, Goietara ibilaldia.

Ertzile, berreskuratutako garaia.

Bisita gidatuak

ELORRIO

-Urriak 20, Sortzez Garbiaren elizako

erretaulak, bisita gidatua+hitzaldia

(Javier de Miguel)

-Urriak 26, San Agustin Etxebarria

elizako erretaulak.

Bisita gidatua+hitzaldia

(M. Urrutikoetxea eta R. F. Amezua)

BERRIZ

-Urriak 27, Eraldatutako udaletxeak.

Berrizko San Pedro basiliza:

memoriaren lekuko arkeologikoa.

Bisita gidatuak

DURANGO

-Urriko labunbatetan, bisita gidatuak

Bizkaibuseko autobus gidarien grebak eragina eduki du

>M.O.

Bizkaiko Foru Aldundiak autobus garraioaren sarea birmoldatuko du, eta horrek beharginen protestak ekarri ditu. Hamabost linea kendu gura dituzte, eta horrek enplegu galera zein kalitatearen jaitsiera dakartzala uste dute langileek. 300 lanpostu kolokan daudela diote. Gestioaren esleipena martxan dago, eta hori geratzea gura dute ELA, LAB, CCOO eta USO sindikatuek.

Martitzenean geldialdiak egin zituzten, eta atzo greba.

Bizkaibusean erabiltzaileek igarri dute eragina; martitzenean, esaterako, autobusari ordubetez itxaron zioten hainbatek.

Hamabost linea kendu, eta beste batzuen ordutegia murriztu egingo direla esan dute sindi-

Esleipena martxan dago, eta hori geratzea gura dute ELA, LAB, CCOO eta USO sindikatuek

katuek. Gainera, leku berrietara heltzeko linea batzuk bateratuko dituzte. Hori gertatuko da Bilbo-Durango lineagaz; Izurtza eta Mañarira helduko da Bilboko autobus hori.

Tabakoa uzteko ikastaroa, Amankomunazgoak eratuta

> MARKEL ONAINDIA

Urriaren 9an hasiko da Amankomunazgoa Drogomenpekotasun sailak eratu duen tabakoa uzteko ikastaro berria. Zortzi

26k tabakoarekiko menpekotasuna gaintu dutela azaldu dute antolatzaileek

batzarretan parte hartuko dute erretzea alboratu gura duten langun horiek. Talde bitan banatuko dute ikastaroa, ordute-

giaren arabera: bata eguzten goizetan izango da, eta bestea eguen arratsaldetan.

Izena eman gura dutenek urriaren 4ra arte izango dute aukera, 94 620 05 20 telefonora deituta, edota prevencion.mdurango@bizkaia.org helbidera idatzita. Hogei euroko kostua dauka.

Azken ikastaroan jasotako emaitzak argitaratu ditu Drogomenpekotasun sailak. Martxoan eta ekaina bitartean garatu zen, eta 34 lagunek parte hartu zuten. Horietatik 26k tabakoarekiko menpekotasuna gaintu dutela azaldu dute antolatzaileek.

> OTXANDIO

Txatxilipurdi elkarteak kudeatuko du ludoteka

Arrasatekoa da Txatxilipurdi aisialdi eta euskara elkarteak; 3-12 urte arteko zuzenduko die eskaintza

> JOSEBA DERTEANO

Datozen urte bietan Arrasateko Txatxilipurdi aisialdi eta euskara elkarteak kudeatuko ditu Otxandioko ludoteka eta udalekuak. Otxandioko hezitzaile bik eroango dute eguneroko jarduna, eta Txatxilipurdik koordinazio lana egingo du ludotekan. Otxandion lehen aldiz eskainiko ditu zerbitzu horiek Txatxilipurdik. Urriaren erdialdean edo azaroan hasiko dira eskaintzarekin. Eguna zehazteko udalagaz eta guraso elkarteagaz hartuemaneten daudela adierazi dute elkarteak kideek.

Gazte denak elkarrekin

3 eta 12 urteko gazteei zuzenduta egongo da ludoteka Andresa Landa eraikinean. Talde ba-

karrean batuko dituzte, denak elkarrekin egongo dira. Horrek, gaztetxoak taldeka antolatzeko ohiko sistema irauliko du. Izan ere, gazteenek nagusienengandik (eta alderantziz) asko ikasi dezaketela uste dute, eta hartuemanak sendotzeko ere, sistema baliagarria dela azaldu dute. Proiektu hori Arrasaten martxan dute orain dela urte bitik hona, eta orain Otxandion txertatu gura dute.

Otxandioko hezitzaile bik egunerokotasuna eroango dute, eta Txatxilipurdik koordinazioa

> BERRIZ

Argindar sareko kableak lapurtu dituzte Olakueta eta Eitua artean

> AMAIA UGALDE.

Guztira 2.500 metro argindar kable lapurtu dituzte Olakuetatik Eitua doan pasabidean. Berrizko Udalak salaketa ipini du, baina ez dute lapurreta egin duenaren berririk. Brigadako langileek datozen asteotan ipiniko dituzte kable berriak, eta lanek 2.000 euroko kostua izango dute.

Irailaren 13tik 15erako asteburuan lapurtu zuten argindar sareko kablea. Orland Isoird Berrizko alkateak azaldu duenez, kableak erosten eta lanen lehenastunak zehazten dabilta, eta brigadako kideek lanak antolatu bezain laster ipiniko dituzte kableak. Udalak hartu du lanen ardura. Alkatearen berbetan, "enpresa bati eskatuz gero, 5.000 eurora garestituko litzateke gastua".

Pym's Little College of Music

MUSIC in ENGLISH

Ingelesez emandako musika eskolak 3 eta 6 urte bitarteko umeentzat

- Txikientzat egokitutako ingurune erakargarria.
- Londreseko Royal College of Music eskolan lizentziatutako irakaslea.
- 45 minutuko saioak.
- Talde txikiak (gehienez 8 ume).
- Ordutegi ona (arratsaldeko lehen orduetan eta larunbat goizetan).
- Bi hizkuntzen (musika eta ingelesa) ikasketa naturala joko, abesti, inprobisazio, mugimendu eta entzunaldien bitartez.
- Kurtso hasiera: Urriaren 15a.
- Matrikula irekia kurtso osoan zehar taldeak bete arte.

PYM'S Murueta-torre 5A eta 5E
48200 Durango
T: 946 815 677

ERROTARITXUENA

DURANGO

HURRENGO ENTREGA!!

Etxebizitza hau zurea izan daiteke

Arriskurik gabe
eta baldintzarik onenetan



Sabadell Guipuzcoano



Bisita ezazu gure
etxebizitza pilotoak

Finantzaketa %100 arte
Baldintzarik onenetan
eta idatziz bermatuak

2 log. 204.000€-tik aurrera + BEZ
3 log. 268.000€-tik aurrera + BEZ

Etorri **BIDEOA IKUSTERA** gure web gunera



www.sukia.com
www.solvia.es

sukia
Zure etxean zaude.
Estás en tu casa.

946 46 20 41

> ELORRIO

Negoiazioa akordio barik eten da Nanuken

89 beharginetatik 44k greban jarraitzen dute



Grebalariak elkarretaratzea egiten dute egunero, plazan.

> MARKEL ONAINDIA

Nanuken negoziazioan egon dira enpresa eta grebalariak, baina ez dira akordiora heldu. Beharginek, lan erreformaz kanpoko hitzarmena eskatu dute, baina enpresak ez du sinatu gura izan, eta hor egon da emaitzaren gako nagusia. Grebalariak enpresari borondate falta egotzi diote: "Arazo ekonomikoaren aitzakiak indar guztia galdu, eta dagoeneko, ez du ez buru ezta hankarik ere konponbide batera ez ailegatzeko". Grebalariak -89 beharginetatik 44k- protestari eutsi diote, eta egunero kontzentrazioak egingo dituzte 19:00etan, plazan.

Aurreakordioa egon da. Beharginek %4ko soldata jaitziera onartua zuten, lau urte-

rako. Orduan erabakiko lukete dirua zelan itzuli. Hilabete eta erdiko ordainsaria zorretan daukate, eta zorra kitatzeko, hamabost hilabeteko epea eskaini zioten langileek enpresari. Akordioagaz, zorraren herena barkatuko liokete. Hitzarmena gura dute, eta neurriak adostu: "Erabaki gogorak hartu behar badira, bi aldean akordioagaz izan behar du, eta ez alde bakarren inposizioz".

Enpresaren ikuspuntua

LABek lau kide dauzka enpresa batzordean, eta ELAk bat. Enpresako gerenteak kritikatu egin ditu. "Une oro esan diegu ez dugula erreformaren erabilpen arbitrarioz egingo. Lehiakortasun handia dago, eta

testuinguru errealista behar dugu. Legeak ematen digun tresna bati ezin diogu ezetz esan". Bizkaiko garraio enpresen presidentea ere bada bera.

Greba hasi baino egun bi lehenago grebalari bat kalera-tu zuen enpresak. Gerenteak esan du ez dela mendekua izan, langile horren errendimendua txikiagoa izan delako kanporatu dutela. Kontrara, grebalariak diote ez dela berekiko kezarik egon: "Bilera errondatik zer bait argi atera baldin badugu, gure lankidearen kaleratzea mendekua izan zela da".

Lanean jarraitzen duen batek esan du ez daudela negoziazioen alde: "Hau patronalaren eta sindikatuen arteko borroka da, eta Nanuk erdian dago".

Kiroldegiko tarifa berriak onartu dituzte

Igerilekurako abonua eta abonua integratua egongo dira; EAJ eta PPren botoekin onartu dituzte tarifak

> AMAIA UGALDE

Sartu dute dagoeneko gimnasioa eta igerilekua erabiltzeko abonua integratua kiroldegiko tarifa berrietan. 175 euro balio du norbanakoarenak, eta 324 familiako abonua. Igerilekuko abonua orain arteko moduan jarraituko du, eta urtarrilean KPia igoko zaie prezioei.

Horrez gainera, ikastaroen prezioak aldatu dituzte eta uretako ikastaro guztiek eta lurreko ikastaro guztiek prezio bera izango dute. Joseba Mujika alkateordeak azaldu duenez, "denetarikoz prezioak egon dira, eta kostua berdina denez, homogeneizatzea izan da asmoa". Uretako ikastaroetan deskontua izateko igerilekuetako abonua izan behar da, eta lurreko ikastaroetarako, berriz, abonua integratua. Datorren astean hasiko dira ikastaroak.

Eztabaida osoko bilkuran

Ezohiko osoko bilkuran onartu dituzte tarifa berriak, EAJ eta PPren aldeko botoekin. Udalbatzar hasieran, Bilduk batzarra atzeratzea proposatu du, "neurriak hobeto aztertzeke". Gaia lantzeko prozedura txarto eroan dela kritikatu du Bilduk.

Bilduko zinegotzien ustez, ikastaro batzuen prezioa larregi

garestitu da: "Abonatu bako adinekoentzat gimnasiaren prezioa ia hirukoiztu egin da -hilabetean 7 eurotik 20ra-, eta aerobic-ekoa ia bikoiztu". Hobari batzuen falta ere sumatu dute, tartean, familiako abonuetan sartu ez, eta gurasoekin bizi diren 18 urtetik gorako ikasleentzako laguntza.

Gaia lantzeko prozedura txarto eroan dela kritikatu dute Bilduko zinegotziek

PPko Carlos Garcia pozik agertu da erabakiekin, eta herritarren parte hartzea bermatu dela nabarmendu du. Bilduko Idoia Buruagak ez du parte hartzerik ikusi: "Jendeak kanpotik izan du informazioa, eta horregatik ipini zituzten kartelak, izututa". Abonua integratua bakarrik egongo zela zioten kartelen gainean esan du hori.

Gimnasio handiagoa

Udan hainbat lan egin dituzte Elorrioko kiroldegian: Sarrera aldatu dute, eta gimnasioa handitu eta makina guztiak berriztu dituzte. Erabilera anitzeko areto bat sortu dute, eta igerilekuan aire instalazioa berriztu dute.

> ATXONDO

Anbotope hutsik uzteko eskatzen zuen demanda atzera bota dute

> J.D.

Arrazolako Anbotope elkartearen gainean, Atxondoko Udalak eta elkartekoek duten gatazkak soka luzea dauka. Kontratu barik zebiltzala argudiatuta, udalak elkartearen lokala berreskuratu gura izan du, udal ondasuna delako, eta etorkizunean herritarren zerbitzura jartzeko. Aurten arte, martxan ipinitako prozesuetako epaiek Atxondoko Udalarari eman diote arrazoia, baina uztailean irten zen azken epaia elkartearen aldekoa izan da.

Udalak 2013ko urtarrilean Durangoko auzitegian ipinitako demanda batean du sorburua azken epai horrek. Errenta kontratuaren epea iraungita zegoela eta, Anbotope elkarte-koek eraikina libre utz zezaten eskatu zuen udalak. Demanda horren inguruko prozesua uztailean amaitu zen, eta epaia atzera bota du udalaren demanda. Elkartearen defentsak legediari zirrikitu bat bat aurkitu dio horretarako. Argudiatu zuenez, udalak eta sasoi hartako presidentek ezarri zuten errenta hartueman ez da gaur egun elkarteak eta udalak duten bera. Oraingoak 2011ko abenduko epaian ei du oinarria, eta beste kontratu berri bat ei da. Epaileak arrazoia eman die. Gainera, defentsak horrelakorik eskatzen ez zuen arren, hasiera data bat zehaztu du: 2011. urtea. Beraz, errenta kontratuek gutxienez bost urteko iraupena dutenez, 2016ra arte egon daitezke elkartekoak Anbotopen.

Udalak errekurtsioa aurkeztu du, eta sei hilabeteren barruan epaia irtetea itxaroten du.

> MAÑARIA

Joan zen egunean 35 lagun batu ziren batzarrean.

Hasi dira herriko Plan Orokorra berritzen

35 herritarrek parte hartu zuten lehenengo batzarrean. Herria zelan eraiki aztertuko dute

> M.O.

Joan zen egunean ekin zioten 35 herritarrek Hiri Antolamendurako Plan Orokorra (HAPO) zehazteko prozesuari. Datozen hamar urteetarako herria zelan eraiki aztertuko dute, hirigintza, ekonomia, gizarte eta kultura ikuspegitik. Orain, HAPOren aurrerapena landuko dute. Gero, aurrekontuen arabera zehaztuko lukete azken doku-

mentua. Herritarren iritzia eta ikuspegiari garrantzia eman dio udalak, eta horregatik ipini dute martxan *Alkarregaz* prozesua.

Hurrengo datak

Beste lau batzar egingo dituzte. Urriaren 3an diagnostikoa, urriaren 24an balorazio mapa, azaroaren 24an lurren azterketa, eta abenduaren 12an proposamenen aurkezpena.

> IZURTZA

Piano eskolak doan hartu ditzakete izurtzarrek

> J.D.

Aurten 23. urtez, Mila Rodriguez musika irakasleak piano eskolak eskainiko ditu Izurtzako liburutegian. Adin guztietako jendeari dago zabalik, eta eskolak doakoak dira, udalak ordaintzen ditu. Baldintza bakarria Izurtzan erroldatuta egotea da. Izen-ematea udaletxean egin dai-

teke, iraila amaitu arte: 11:30etik 15:00etara.

Eskolak urriaren 1ean hasiko dira. Iazko bederatzi ikasleek aurten ere jarraituko dute, eta guztira, 15 bat lagunentzako toki badagoela adierazi du Rodriguezek. Eskolak martitzenetan eta eguaztenetan izango dira, liburutegian. Lehendik piano nozioak dituztenei zein lehen urratsak eman gura dituztenei, bie zuzendutako eskolak eskainiko ditu. Adin tartean ere ez dago mugarik: bost urtetik gorako edonork parte hartu dezake. Gaur egun, esaterako, 22 urtetik 55 urtera arteko ikasleak ditu.



> DURANGALDEA ASTEON**AEK-k 4. mailako euskara eskakizuna ateratzeko ikastaroa hasiko du**

Durangoko AEK euskaltegiak eta Ermuko Kaltxango AEK-k eskainiko dute ikastaroa, eta 4. mailako hizkuntza eskakizuna behar dutenei zuzenduta dago. 180 ordu eta 10 tutoretza saio ditu. Urritik ekainera da, astean egun bitan. Matrikula 572 euro da, eta diru-laguntzak jasotzeko aukera dago. Izen-ematea urriaren 4ra artekoa da: abarrak@aek.org (Durangon) eta kaltxango@aek.org Ermuan.

Biodantza mintzagai izango dute urriaren 4an, Elorrion

Irailaren 30etik urriaren 4ra Euskal Herriko hainbat herritan Biodantza Astea antolatu dute. Eki-menetak bat Elorrion izango da. Urriaren 4an, Mentxu Arjonillak biodantzaren inguruan jardungo du Elorrioko Txintxirri ikastolan (18:30etik 20:30era). Izen-ematea telefonoz egin daiteke: 626 661 292.

Mas Curvas motozale elkarteak ibilaldia prestatu du domekan

Mas Curvas motozaleen elkarteak 'Motohamarretako' moto ibilaldia antolatu du domekan. 10:30ean irten-go dira elkartearen egoitzatik, eta eguerdian itzuliko dira inguruetatik ibilaldia egin ostean. Ondoren, hamarretakoa egingo dute, eta hainbat sari zozketatuko dituzte. Izen-ematea 09:30ean hasiko da (5euro).

'Dance style' ikastaroa eskainiko dute Durangon

Durango Kirolak erakundeak 'Dance Style' ikastaroa antolatu du: hip-hop, fama, zunba... estilo askoren nahasketa eskainiko dute. 13 eta 17 urtekoei zuzenduta dago. Urritik ekainera izango da, martitzenetan eta eguenetan, Landako kiroldegian. Gurasoek eman behar dute izena kiroldegian (19,5 euro hilean).

> IURRETA**Goiuriko betelekurako jarduera baimena balio barik utzi dute**

Errekurtsoa aurkezteko aukera egon arren, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren ebazpenagaz amaitutzat jo dute martxoan hasitako prozedura

> AITZIBER BASAURI

Lukupeko Troka eta Luku Txiki ibarbideak lurrez betetzeko, udalak 2010ean emandako obra eta jarduera baimena balio barik utzi dute. Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren ebazpena onartuta, martxoan hasitako prozedura amaitutzat jo dute; lizentzia baliogabetezko txosten hori nahitaezkoa eta loteslea da.

Deuzestazun-kausa bazegoela ikusita, Astuariasko Auzitegi

Gorenak ibarbideak lurrez betetzeko Jaurlaritzak emandako baimena baliogabetu eta gero hasi zuen prozedura udalak; URA agentzian ez zituzten tramitera eroan bi langileren kontrako errekusatze-intzidente bi.

Bilduk ez du bozkatu

EAJ, PSE-EE eta PPK onartu zuten txosten juridikoa. Bilduko zinegotziak aretotik irten ziren, "bozketan parte hartzeko irizpi-

de nahikoa" ez zutelakoan. Txostena aztertzeke 24 ordu baino gutxiago izan dutela kritikatu zuen Bilduk, eta horixe arrazoi-tu atzoko batzarraren premiatsuna ez onartzeko ere. Udalean eguaztenean jaso zuten 13 orriko txostena, eta gaurko ebatzi beharra zuten. Beste udal taldeek epeak denentzat berdinak direla, eta ebazpena argia dela esan zuten; ez datoz bat prozedura gelditu eta berriro hasteagaz.

Bilduk gogoratu zuen be bai, auzi horregaz lotuta, udalaren kontrako prozedura administratibo bi daudela zabalik Bilboko 2. eta 5. epaitegietan, eta horiek

ñaki Totorikaguena:

"Bestelako deuzestazun kausarik dagoen edo ez epaileek erabakiko dute"

argitza litzatekeela onena. Udalak, baina, amaitutzat ematea eskatu du. Ñaki Totorikaguena alkateak dioenez, "bestelako deuzestazun-kausarik dagoen edo ez epaileek erabakiko dute". Hala ere, "une honetan baimen hori juridikoki ez da existitzen".

Txapligu hotsez hasiko dituzte sanmigelak iurretarek, bihar**> A.B.**

Montoitik jaurtitako txapligu hotsekin hasiko dituzte sanmigelak iurretarek, bihar. Donien-atxa arratsaldean igoko dute, eta gero, dantzarien azken entsegua egongo da. Nobedadeekin datoz aurten San Migel jaiak, Domingero Eguna eta gala afaria eratu dituzte oraingo honetan.

Biharkoa dute egun handia Iurretan: San Migel. Hala ere, gaur ere badago zertaz gozatu: antzerkia, umeentzako herri-kirolak eta rock kontzertua.

> GARAI**Zubiaurreren "obra enblematikoa" ikusgai, Arte Ederren Museoan**

Madriko Reina Sofia museotik Bilbora ekarri dute Ramon Zubiaurreren lana

> MARKEL ONAINDIA

Ramon Zubiaurre margolaria Garain jaio zen 1882an. Artista ospetsua izan zen, eta bere lanek oihartzun handia eduki zuten Europan zehar. Madriletik ekarrita, Bilboko Arte Ederren Museoan ikusgai dago bere obra ezagunetako bat: *Shanti Andia 'Ausarta' euskal itsasgizona*. "Joan zen mende hasierako euskal pinturaren pieza enblematikotako bat" dela esan dute arduradunek. Reina Sofia museoaren jabetzakoa da margola-

na, eta 2014ko urtarrilaren 5era arte egongo da Bilbon.

Hilaren 18an egin zuten obraren aurkezpena Josune Ariztondo kultura ditutatuak, eta Javier Viar museoko zuzendariak. Banco Santanderrek babesten duen Obra Gonbidatua egitasmoaren baitan ekarri dute, eta horregatik eskerrak eman dizkio Ariztondok babesleari, baita Reina Sofia museoari ere.

Azaldu dutenez, koadro museoeko eraikin zaharreko 31. aretoan dago erakusgai, eta ber-

tan, autoreak berak egindako beste lan batzuk ere badaude, hainbat tonu eta baliabide estetiko osatutakoak. Arduradunen esanetan, Zubiaurrek hainbat gai jorrazten zituela frogatzen du horrek. *Shanti Andia 'Ausarta' euskal itsasgizona* lanak postinpresionismoko lengoia adierazten du, euren esanetan. 1924an ondutakoa da, eta Pio Barojak 1911n kaleratutako *Shanti Andia*ren *kezak* liburu ezagunaren ilustrazioa dauka oinarri.



Ariztondo eta Viar, margolanaren aurkezpenean.

ALBERDI

DURANGO

Bertako okela
Aurretiaz
prestatutako
janariak

Askatasun etorbidea, 1 - Durango
Telefona: 946 817 658

▶ Berbaz

Walter Ágredo Muñoz | Kolonbiako preso politikoen elkartasun kolektiboko kidea | 43 urte, Kolonbia

“Kolonbian, kartzelak biltegiak dira, jendea bota egiten dute bertan”

Kolonbian egindako lanetatik mehatxuak jaso ostean, hilabete batzuetan errefuxiatu erregimenean egon da Ágredo, eta bueltan joango da aste bi barru. Durangon ere hartu du babes zenbait egunetan; urriaren 5ean berbaldia emango du Intxaurren, 17:00etan.



> MARKEL ONAINDIA

Lan politikoagatik errefuxiatu erregimenean zaude. Zelan gertatu zen zure ihesa?

Iraunkorki mehatxuak jasotzen gabiltza komitean. Gure lanak asko molestatzen du. Paramilitarrek eraildako kideak eduki ditugu: Everardo Jesus Puerta, Julio Ernesto Gonzalez eta Luciano Romero. Kasu emblemakoena desagertutako kide batena da, Alirio Jesus Pedraza, Bogotako abokatu. 1989an desagertu zen, hamasei sindikalisten defentsa egin ostean. Alvaro Uribe demokratikotzat zeukan bere burua, eta horren lekuko, Kolonbian terroristak defendatzeko elkarte bat zegoela esaten zuen. Gugatik zebilen berbetan, eta horrek egoera gaitzean utzi gintuen. Kartzeletako agintari, polizia eta abarrek matxinatuen adar politiko lez markatzen gaituzte. Mezuak uzten dizkigute gure telefonoetan, Internet bidez... Las Aguilas Negras, Los Rastrojos eta antzeko zenbait talde paramilitarrek sinatuta. Hasieran gauza lasai hartzen duzu, eta zoritxarrez, naturalizatu egiten duzu. Egoera, baina, aldatu egiten da zure izen propioa ikusten duzunean. 2013an asko handitu zen jarraipena, eta komiteak Asturiasko errefu-

xiatu programan ipini ninduen epe baterako. Gogorra izan da, ingurune soziala, lana eta familia atzean uztea ekarri didalako. Askok galdetzen didate ea zer gertatuko den bueltatzean, eta ez dakit. Baina nire ekinbide politikoa Kolonbian dago.

Zer egiten duzue komitean?

Fundación Comité de Solidaridad con los Presos Políticos deitzen da nire kolektiboa, giza eskubideen ingurukoa da. Aurten 40 urte bete ditu. Preso politikoen defentsa teknikoa eta juridikoa egiteko sortu zen. Bestalde, kartzeletako arreta lana ere egiten dugu. Nire probintziakook zazpi espetxe bisitatzen ditugu. Arduratzen gara pertsonaren inguruan, zelan dagoen osasunez, zeintzuk diren zailtasunak... Informazioa batzen dugu, eta horren ostean, informe bat egin. Osasun falta, guardia-aren tratua txarra, elikadura falta... Preso politikoen, sistemaren aurkariak izan direlako, tratua desberdina jasotzen dute.

Zeintzuk dira preso politikoen Gerrillariak?

Gure ustez, preso politikoen figura aspaldi aldatu zen. Ez da bakarrik preso politikoa borroka armatuari lotua dagoena.

“

Ez da bakarrik preso politikoa borroka armatuari lotua dagoena.

Jende askok kartzelan amaitu du oposizioa egiteagatik”

“

Kartzeletako agintari, polizia eta abarrek matxinatuen adar politiko lez markatzen gaituzte”

Jende askok kartzelan amaitu du oposizioa egiteagatik, edota eskubide batzuk aldarrikatzeagatik: nekazarien buruzagia, indigenak, sindikatuak, ikasleak... Zein da gobernuak eta poliziak egotzen dieten delitua? Gerrillaren laguntzaile direla.

Zelakoak dira kartzelak?

142 kartzela daude, azkenekoak estilo ipar amerikarrean eraikiak, muturreko segurtasunekoak. Kartzela sistema osoa kolapsatuta dago, askatasuna ukatu dieten 117.000 pertsonagaz. 2.050 dira preso politikoen. 1.350 presorentzat eraikitako Villahermosako kartzelak, esaterako, 6.000 dauzka. Pentsatu ezazu zelako baldintzetan bizi diren. Kolonbian, kartzelak biltegiak dira, jendea bota egiten dute bertan. Eraikin zaharrak dira, hezeak, elektrizitate arazoekin, ura ez da ona izaten edateko... Horrek osasun arazoak sortzen ditu. Azken urteetan 80 lagun inguru hil dira osasun arazoengatik.

Kalean zelako egoera bizi da?

Kolonbiak ia 400.000 polizia dauzka, eta orain dela gutxi esan zuten 5.000 gehiago sartuko zirela. Eguneroko bizitza militarizatu dute. Bestalde, paramili-

tarrak ere hor daude. Inoiz ez ziren desmilitarizatu. Gaur egun egitura txikiak dira, narkotrafikatzaileek kontrolatuta, baina auzo eta hiriak kontrolatzen dituzte. Azkenean mugimendu soziala bera ere kontrolatzen dute, mehatxatuta eta kanporatuta. Legez kanpoko exekuzioen kasuak ere ezagutu ditugu. Batez ere Alvaro Uriberen legealdi bietan. Uribe esan zuen matxinatuak garaituko zituela, presidentetzara heltzeko. Ikasketa eta lanik ez zeukaten gazteak auzo marjinaletatik hartu, eta hirien kanpoaldean erailten zituzten. Gero, uniformea ipintzen zieten, eta matxinatuak zirela esaten zuten, baita matxinatuei kolpe gogorra eman zietela ere. 4.000 kasu izan ziren, eta gaur egun ere gertatzen ari dira. Publizitatea zen. Gure ustez erailketa zikin eta zitalak dira, ez exekuzioak, Kolonbian ez dago eta heriotza-zigorra onartuta.

Berbaldia eskainiko duzu urriaren 5ean.

Nire ideia Kolonbiako egoeraren inguruko berbaldia eskaintzea da. Bake unea daukagu, elkarriketak daude FARC eta Gobernuaren artean. Baina Kolonbian dagoen beste matxinatuen mugimenduagaz elkarriketarik ez dagoen bitartean, Ejército de Liberación Nacional, gaitza izango da bakeaz berba egitea. Horrez gainera, Gobernuak mugimendu sozialen aldarrikapenak entzuteko espazio batek ere egon behar luke. Gatazkari sorrera eman zoten oinarritzko arazoak, arazo sozialak -gosea, bazterketa...-, oraindik bizirik daude, eta okerrago egin dira. Baldintza horiek dauden bitartean, Kolonbiako edozein pertsona armak hartzeko prest egongo da, bere oinarritzko beharrianak defendatzeko.

Euskal Herrian eginiko hartuemanek zer ondorio duzu?

Pertsona eta herri duin batez topo egin dut. Erresistentea ere bai, baina une oro birsortzen dagoena. Eredu da. Espainiako Gobernu mugitu egin beharko da, bai presoen kolektiboaren inguruan, bai Euskal Herriko aldarrikapenen inguruan.

Klik!>



komunikabideak

Anbotoren argazki lehiaketa "12hilabete, 12 herri"

Lagundu iezaguzu 2014ko egutegia osatzen.



Sariak

Argazki irabazlea: 300€

Paisaiarik onena: 200€

Lanak aurkezteko azken eguna urriaren 31.

Informazio gehiago: anboto.org

SEI HANKAKO MAHAIA
IDOIA AGORRIA

PSE-EE


Iraileko aldapa, inoiz baino gogorragoa

Oporretatik itzultzea ez da hain gogorra izaten lan bat badugu, berriz ere horretan jarduteko. Frantzisko aita santuak aste honetan esan duen legez, lan duin bat. Beharbada, bitxia irudituko zaizue aita santuak esandakoa errepikatzea, baina badirudi ganora handiagoz hitz egiten duela erlijio arloko beste agintari batzuek (adibidez, Rouco Varela) baino. Bergogliok bestelako sexu joerak dituen kritikak saihesten du, adierazi du inoiz ez dela eskuindarra izan, eta hausnartzen ari da emakume bat kardinal izendatzeko aukeraren inguruan. Asmo horiek adieraztean marketina egon arren, horiek ikusita, askoz ere sentiberatasun eta errespetu gehiago erakutsi ditu bere aurrekoek baino.

Hala ere, okerrago daude lanik ez dutenak. Ezin dira oporretan joan, eta ezin dira gaixotu, osasun unibertsalik gabe, ordaindu egin beharko baitugu bizi ahal izateko. Horrez gainera, ezin diote hipotekari aurre egin, ez eta ur eta argiaren fakturei ere. Are gutxiago, eskolako gastuari; aurten, gainera, marka historikoak hautsi ditu dirudienek, eta, gainera, bekak inoiz baino urriagoak dira.

Lanik ez badugu, erakundeen laguntza bilatzen dugu, baina, normalean, familiarri esker egiten dugu aurrera. Hala ere, familiarri gero eta zailago dute, PPri esker, oso langile gutxiak baitu hitzarmen kolektiboaren babesa. Eta zer esango dugu erretiratuiei buruz? Familiarren zama eraman behar dute bizkarrean, gero eta ahulago egon arren. Aste honetan jakin dugunez, Rajoyren gobernuak erretirodunak areago txirotzea erabaki du. Haien kontura "aurreztea", orain esaten den moduan.

Zer egin behar dute, eta zer egin ahal dute udalek honelako uneetan? Enplegu-planak jarri behar dituzte abian, langabeak kontratatu ahal izateko. Nire ustez, Durangoko Udalean ahalegin berezia egin beharko genuke arlo horretan, gorriak ikusten ari diren herriko familiei sostengua emateko.

Elkatasunetik konpromisora, zubia igarota

Eremuz txikia izan arren, historia handiko herria naiz.

Hamaika istorio bizi izan ditut, zenbait amets, hainbat gertaera... Baina nire bizitza ez da batere samurra izan. Mila koloretako gudarosteak pasa dira hemendik. Ehunka izan dira gerrak, milaka batailak, eta horrek bere eragina izan du.

Inguru hauetako herritarrak elkar ulertu ezinda bizi izan ziren urtetan, eta azkenean bitan zatitu ninduten.

Negar egin nuen, eta horrek ez zuen bi aldean arteko distantzia handitzea baino lortu, herri erdi-erdiatik ibai izugarri bat pasarazita. Baina azken aldian itxaropentsu nabil berriz. Nire herrikide batzuen asmoetan igarri dut konponbidea nahi dutela. Hori diote, bihotzez diote. Inguratzen ninduen harresiko harriak hartu dituzte, eta zubia eraikitzen hasi dira. Harresiz egindako zubia da. Erasoen aurrean itxiko dena, baina herritar guztientzat irekia. Zubi harresia da! Baina oraindik ez dute nahikoa. Harri gehiago behar dituzte. Herritar norbanako bakoitzaren laguntza behar dute. Guztion konpromisoa behar dute. Gure konpromiso handi nahiz txiki bakoitza, zubia eraikitzeko aprobeztatu dute. Zubia eraikitzeko konpromisoa hartu behar dugu, negar egiteari uzteko, konponbidea lortzeko. Nire herrikide batzuk horretan dabilta lanean, zubia osatzin, zubi harresia eraikitzen. Bakoitzak konpromiso bat hartu du, baina guztiek balio dute.

Laster lortuko dugu, elkatasunetik konpromisora eta konpromisotik, zubia igarota, konponbidera.

Eta zuk zer konpromiso hartuko duzu?

Irailaren 29an igaro dezagun guztiok zubia. Denok Lekeitiora!

Eñaut Aiarzagüena, 26/11 sumarioan auzipetua

Elkartasuna eta indarra

Dagoeneko 3 aste baino gehiago daramazue greban, tarte horretan enpresa ixteko mehatxuak, zuen borroka nahiarri erasoak, edota zuekiko irainak jaso dituzue. Hala ere, gogor eta irmo jarraitzen duzue, zuen oinarrizko eskubideak defendatzen!

Inurriak zarete, bakarrik, izaturik eta noraezean ibili arren, taldean suntsiezinak diren horietakoak. Zuekin borroka hau konpartitzeko aukera edukitzeak harrotu egiten gaitu, oraindik ere, borroka egitea merezi duela ikusi baitugu; Cementos Leona, Odi Bakar, Bizkaiko Gasolindegia... asko dira azken urte honetan borrokaren hautua egin dutenak, eta orain, zuek hartu duzue lekukoa. [...] Enpresari, mahai gainean jartzen dituen "arazo ekonomikoak" konpontzeko akordioak eskaini dizkiozue; badakigu ez zenutela zertan, baina hori da zuen eskuzabaltasunaren eta enpresaren etorkizunarekiko konpromisoaren adierazle. [...] Iñaki Errastik, NANUKeko gerenteak, inposaketaren kudeaketa ezagutzen du, eta ez negoziazio eta akordioa; ezta legeak hala diogenez ere. Horren adibide, maiatzean langile batzuei egindako lan baldintza aldaketa; legeak jakinarazpena eta negoziazio prozesu bat egon behar dela badio ere, berak egun batetik bestera lanerako formak aldatu zizkizuen, eta beraien abokatuak ere onartu du hori txarto eginda dagoela! Horrelakoak dira onartzen ez dituzuenak, forma horiek dira gehiago ikusi nahi ez dituzuenak.

Elefantea da Iñaki, bere handitasunean NANUKeko gerente izateaz gainera, ASETRAVIko presidente ere badelako. Bizkaiko garraio patronalaren nagusitasuna defendatu behar du, nahiz eta, horretarako NANUK itxi; eta ondo doan enpresa bateko 90 familia kale gorrian utzi. Euskal Herriak gehiengo osoz esan dio

Espainiako lan erreformari ezetz, eta orain NANUKeko grebalariek eutsi diote borroka horri, entzun dezatela bai Errastik, baita gainerako bazkideek ere: errespetatu Euskal Herriaren hitza!

Elefanteak, ordea, badu izu bat, kontrolatu ezin duen beldurra. Zuei, inurriei dizue beldurra, baina ez zuen txikitetasunari, ez! Zuen lanerako, antolaketarako eta borrokarako konpromisoari baizik, horrek handi egiten baitzaituzte!

Muxu bat, zelan ez, enpresaren jarrera bortitzena pairatu duen Xaguri eta bere familiari! Lanera bueltatuko zara! Buelatu egin behar duzu! Enpresaren erabakia ez delako mendeku jarrerara bat baizik, eta argi dugu borrokaren hautua zigortzerik ez dugula onartuko, ez gaur eta ez inoiz! Guk, zer esan gutxi dugu, ondoan gaituzuela, bide lagun, lanerako eta borrokarako prest, eta, batez ere, harro! Gure indar eta berotasun guztia zuei, eredu zarete guztiontzako-eta!

LAB Durangaldea

Iurretako dantzariak

Jakina den bezala aurtengo San Migelak bereziak izango dira, historian lehen aldiz neskak ere merezi dugun protagonismoa izan, eta orain arte mutilenak soilik izan diren dantza saioetan gure ekarpena egingo dugulako!

Honako urrats hau, baina, ez da egun batetik bestera lortu. Gaur egungo dantza taldea sortu zenetik gure buruetan bueltaka ibili den ideia bat da, izan ere, denok uste dugu neskak ere mutilen eskubide berberak ditugula, eta beraiek egiten dituzten dantza saio berberetan parte har dezakegula, denok ere parekoak garelako! Hala ere, nahiz eta ideia horrek buruan bira batzuk eman, ez gara sekula pauso hori ematera ausartu. Arrazoiak? Mila! Herritarrek esango dutenaren beldurra, ohitura zaharrak aldatzeko izango lituzkeen eraginak, eta gazteak garen heinean gauetako parranda luzatuz gero, hurrengo egunean kalejirara joan behar diren galbana! Denok ezagutzen ditugu San Migelak!

Asko izan dira urteetan goizetako kalejirara joatera gonbidatu gaituztenak, azkeneko gonbita udaletxetik bertatik jaso genuen iazko San Migelak baino aste batzuk lehenago. Baina, gonbidapen horiek guztiek ez gintuzten erabat konbentzitzen. Zerbait falta zen! Zer da bada falta zena? Gonbit horiek guztiak kalejira egiteko baino ez ziren. Hau da, neskak mutilokin batera kalejiran parte hartu (horretarako goitik behera jantzi, moinoak egin...) eta ondoren? Inork ez gintuen dantza egitera gonbidatu! Asmoa zein zen pasakailea egitea? Gu ez gaude kalejira egin eta ondoren kantoi batetik mutilek dantza nola egiten duten ikusteko prest. 2013ko urte hasieran buruan genituen ideia guzti horiek, beti bezala, ideia hutsean geratu ez zitezen, guzti honi buruz berba egiteko eta aurreko urtean udaletxetik jasotako gonbita expres horri buelta batzuk emateko geratu ginen eta ideietatik ekintzara pasatuko ginela erabaki genuen. Horregatik, aurtengo San Migeletan (Laixiarreko ensaiotik hasita) neskak dantza saio guztietan hartuko dugu parte! Ordua delako plaza andreak garelako erakusteko! Bukatzeko, udaletxeari eskaera bat egin nahiko genioke, pasa den urtean neskak pasakailera joateko eskaera egin zuen bezala, ea udaletxe aurrean dagoen dantzariaren alboan neska bat jartzen duen, Iurretako herriko dantza taldeak mutilek gain neskak ere badituelako!

Besterik barik plazan ikusiko dugu elkar! Gora sanmigelak!

Iurretako gaur egungo dantzariak

Laguntzaileak:


Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



2013ko irailaren 27a
11. urtea - 515. alea

Zuzendaria:

Jone Guenetxea.

Erredakzio burua:

Joseba Derteano.

Administrazio burua:

Itziar Belar.

Administrazioa: Miren Abasolo.

Publizitatea: Goretzi Alonso.

Amaia Huarte, Itxaso Altuna.

Erredakzioa: Aitziber Basauri,

Itsaso Esteban, Markel Onaindia

eta Amaia Ugalde.

Maketazioa: Eider Alberdi.

Zuzentzaileak:

Jon Ander Urkiaga.

Argazkilariak: Kepa Aginako,

Zalaoa Fuertes.

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028 Tirada: 10.600 ale

Idoia Bediaga | Abadiño, 1994. | Abeslaria

«Nire estiloa garatu gura dut, lehen, besteen kantaerara egokitzen saiatzen nintzen»

Madrilera joan-etorrian bizi da Idoia Bediaga ekainetik hona. 'La Voz' telebista programan hartu dute, eta "agertokian esperiantzia hartzera" doa

> ITSASO ESTEBAN

Bide gogorra izan duzu 'La Voz' saioan sartzea lortu arte? Aurretik *casting* asko egin ditut, beti ibili naiz horrelakoetan parte hartu guran. Programan parte hartzea bera lorpena da: agertokian esperientzia handiagoa batzeko. Baina ez nuen espero honaino helduko nintzenik. Bost *casting* igaro ditut.

Zelako esperientzia da?

Oso esperientzia polita da, txikitatik gura izan dudana delako. Kamera aurrean egotea arraroa egiten da, baina ETBko *Kantuan* programan parte hartu nueneko esperientziak laguntzen dit horretan.

Nekagarria da?

Aurrera-atzera denbora asko ematen dugu programan, eta apur bat nekagarria ere bada, baina zer edo zer benetan gogoko duzunean aurrera egiteko modua topatzen duzu. Pertsona moduan, eta baita musikari legez ere, hazi egin naiz.

Zelakoak izan dira 'casting'-ak? Lehenengoa bideo bat bidaltzean zetzan, eta hori igarota, Bilbon eta Madrilen pasatu nituen hurrengo probak.

Badakizu zenbat jende aurkeztu den lehiaketara?

Uste dut estatu osoko 15.000 lagun inguru aurkeztu direla.

Musikari profesionalak gidatuko zaituztela da programaren funtsetariko bat, ezta?

Bai, programaren oinarria da *coach* bakoitzak bere taldeko 16 abeslariak hezi, eta abeslari hobeak izateko prestatu behar dituela.

Rosario Flores abeslariak hautatu zaitu bere taldekide izateko. Zelan hartu duzu?

Ohorea da niretzat, oso pozgarria. Rosario Flores eta Antonio Orozco ni hautatu izana harri-garri egin zait, ez nuen espero. Oso eskertuta nago Rosariok nigan konfiantza jarri duelako.

Rusian Red kantariaren 'Cigarettes' kantuarien bertsioa eskaini zenuen lehenengo saioan. Bai, izan ere, asko identifikatzen naiz abestiarekin, eta kantariarekin ere bai. Jendeak uste du abesti zaila dela, baina niri erraza egiten zait: oso gustura kantatzen dut. Abesti hori kantatzen oso eroso sentitzen naizelako aukeratu dut, eta nire estiloa delako. *Kantuan* programan

egindakoagaz ez dauka zerikusirik honek. Nire estilo pertsonala garatzen nabil orain. Lehen, besteen kantaerara egokitzen saiatzen nintzen. Nire nortasuna garatzeko prozesuan nabil, eta emanaldi horretan garapen hori islatu gura izan dut.

“

Ehuneko ehunean, neu naizena islatu gura dut programa horretan: neuk gura dudana Idoia naiz”

Zu zarenagaz lotura handiagoa dauka, beraz, estilo horrek?

Bai, ehuneko ehunean, neu naizena islatzen du programa horrek. Neuk gura dudana Idoia naiz. Hain zuzen, ondo kantatzen duen jendea bakarrik ez, nortasuna daukan jendea bilatzen dute programa horretan.

Badakazu norbait kantak aukeratzeko, edo bestelako erabakietan laguntzen dizuna? Ama oso inportantea da nire bi-

zitan, eta musikari oso lotuta dago bera ere. Lagungarri egiten zait bere iritzia sarritan.

Jendeak zer komentario egin dizu zure parte hartzeaz?

Jendeak telebistan ikusi naue-nez begiratu, edo geratu egiten naute kalean noala. Nirekin argazkiak atera ere egin gura izan du jendeak. Programaren jarraitzaile oso sutuak daude. Gainera, Euskal Herriko jende asko ez da joaten horrelako lehiaketetara, eta uste dut jendea harro dagoela nitaz.

Igartzen duzu, beraz, telebistak daukan oihartzuna?

Bai, itzela da. Sare sozialak ere gainezka eginda dabilta.

Zure ahotsak zerbait berezia daukala esan dizute.

Bai, horrela esan didate, baina esango nuke, programan parte hartzen duten artista guztien ahotsak direla bereziak. Nire kasuan, nire erregistroa eta kantaera gustatu zaie.

Zelan lantzen duzu ahotsa?

Jendeak uste du kantari guztiek egiten dituztela ahots beroetatik, baina nik ez ditut egiten. Batzuetan atentzioa ere eman didate beroketarik ez egiteagatik. Etorkizunean gustatuko litzaidake solfeo eta ahotsa lantzeko eskolak hartzea.

Hemendik aurrera zer eskaintzeko asmoa daukazu programan. Euskarazko abestiren bat kantatuko duzu saioan?

Nire estiloa mantenduko dut aurrerantzean, eta ez dakit irakasleek emandakoak edo geuk au-

keratuak izango diren kantak. Baina edozelan ere, eta euskaraz kantatzea polita iruditzen zaidan arren, ez euskaraz ez gaztelaniaz, ingelesez kantatuko dut.

Sortzerakoan ere ingelesera jozten duzu asko, ezta?

Bai. Hizkuntza horretan ateratzen zaizkit kantak. Jendea harritu egiten da horrekin, baina entzun dudana musika ingelesez izateak asko eragin du nigan.

Zein da zure musika ibilbideari loturiko zure ametsa?

Telebistan agertzeko ametsa eduki dut txikitatik, baina orain, programan nagoela, pentsatzeko era ere aldatu egin zait apur bat. Txikitatik gura izan dudana lortu dut, baina edozein momentutan dena alda daitekeela ere konturatu naiz.

Zure sorkuntzetarako astirik badakazu?

Denbora gutxiago daukat orain, baina telebistan agertu arren, nire bizitza orain artekoa bezalakoa da. Orain arteko gaiak lantzen ditut kantetan, eta estilo bereko kantak sortzen ditut etxean, nire gitarragaz.

Farewell taldeagaz jarraitzen duzu?

Geldiunean gaude, egia esan, baina taldea ez dut lagako telebistara joan naizelako.

Zure musikarako joeragaz lotzen duzu zure janzkera?

Bai, artista gisa, itxura inportantea dela uste dut. 50eko hamarkadako estetika gustatzen zait, eta nire musikarekin bat datorrela uste dut.

> ITSASO ESTEBAN

Urriaren 1ean abiatuko dute Marmarrean izeneko ekimen berria Durangoko Plateruenean. Egun horretan, herritarren proposamenak batzeko funtzioa izango duen kutxa ipiniko dute antzokian. Plateruenera lagunartean egotera bertaraten den jendeak tabernako berriketaldietan ahotan darabilzan gaiak kutxa horren bitartez ezagutaraztea gura dute.

Herritarren proposamen horiek, hainbat formatutako ekimen itxuran bueltatuko ditu Plateruenean. Herritarrek botatako gaietatik bat aukeratu, eta hileroko aukeraturiko gaiagaz loturiko berbaldi, film emanaldi, edota ikuskizun berezia eskainiko du Plateruenean bueltan.

> Parte hartze zuzena

Demagun azkenaldian elikadurari buruzko eztabaidak daukazula lagunekin sarri, jakin-min berezia duzuela gai horrekiko. Kutxara gai hori proposatzea da Marmarrean ekimenak eskatzen duena. Eskaintzen duena, berriz, intereskoa duzun gai horren inguruan Plateruenean bertan sakontzeko aukera da. Horretarako, kasuan kasuko gaiaren inguruan erkarpenak egin ditzakeen Durangaldeko herritarrek gonbidatuko ditu antzokiak.

> ANTZERKIA

Gazteak antzerkira gerturatzeko tailerra

Abadiñoako Udalak antolatu du 12 eta 18 urte arteko abadiñarrei zuzenduriko antzerki tailerra

> I.E.

Eñaut Uruburu abadiñarrak gidatuko du Abadiñoako gazteen antzerki talde berria. Hilean birritan batuko dira parte hartze animatzen direnak.

“Antzerkiaren bitartez 12 eta 18 urte arteko neska-mutilen arteko bizikidetzeta eta harremanak bultzatu” gura dituztela adierazi du Abadiñoako Udalak. Ima Zapardiez zinegotziaren berbetan, “oholtza gainean elkarrekin egiten duten talde-lana aukera bikaina da gazteen ar-

> EKIMENA

Plateruenean, Marmarrean: parte hartzeko bide berriak eskaintzeko

Herri kulturgintza bultzatzeko helburuagaz antolatu dute ekimen berria



Platerueneko programazioan falta duten hori lantzeko proposatzeko modua eskaintzen die Marmarrean ekimenak herriko jardueretan parte hartzeko gogotsu daudenei. Helburua, herritarrek kulturgintzan zuzenean esku hartzea da, kontsumitzaile huts ez izatea, eta intereseko gaien inguruko eztabaida eta sozializazioa erraztea.

Herritarrek proposaturiko gaietatik bat aukeratu, eta aukeraturiko gaia jorratuko dute, hileroko, Marmarrean-en

> LITERATURA

Lehenengoz batu da Irakurketa errazen kluba

Durangoko Udal Liburutegian sortu dute, lehenengoz, adinekoentzako irakurketa taldea

> I.E.

Irakurtzeko era guztietako gaitasun maila duten irakurle nagusiei zuzendurikoa da, Durangoko Udal Liburutegiko Irakurketa erraza tailerra. Astean behin elkartzen dira taldekideak bertan, eta elkarrekin irakurri eta komentatzen dituzte liburuak. Bestelako irakurketa taldetan egiten den bezalatsu. Durangoko tailer horren berezitasuna, baina, kideak begirale baten gidaritzagaz, irakurketa eta ulermena errazteko egokitutako liburuen

Herri kulturgintza lantzeko helburuagaz azken urteotan Durangoko Plateruenean martxan ipinitako Zilarrezkoen ataleko nobedadea da Marmarrean. Beste behin ere ez dute hutsik egingo, bestalde, sail horretako hainbat proposamen arrakastatsuk: Kantuaren Kantoiak, Bertsozalek, Kantulagunek, Berbertanek, eta bestelakoek.

inguruan batzen direla da. Helburuak, beste edozein irakurketa talderenak dira, baina adinekoei zuzenduak: parte hartzaileek irakurketarekin gozatzea, memoria indartzea, irakurketa eguneroko ohitura bihurtzen laguntzea, entzuten eta parte hartzen ikastea, eta jarduera kulturaletan aktibo izatea.

Durangaldean, eta EAEn ere, aitzindaria da Durangon martxan ipini duten Irakurketa erraza tailer hori. Durangoko Nagusien sailak bultzatu du ekimena.

GEURE DURANGALDEA

ARANTZA ARRAZOLA
eta MAIDER LARRAÑAGA

San Agustin
kulturgunea



Musu-truk

Gaurkoan gai irristakor batekin ausartuko gara, “musu-truk” egiten den lanaz berba egin nahi dugu. Gaiak ez du helduleku errazik, are gutxiago 1.500 karakteretan, eta gure asmoa ez da inor mintzea, ezta errudunak topatzea ere, ez baitugu uste on edo txarren kontua denik, kulturgintzako eragileekin eztabaidatzeko gai bat proposatu besterik ez dugu nahi.

Inork gutxi eztabaidatuko du eskuzabaltasuna giza balio eta jarrera goraiagarrienera dela, askotan elkartasuna edota helburu batekiko konpromisoa adierazteko modua. Kulturgintzara etorrita, zenbat eta zenbat izan ote dira Euskal Herrian horrela antolatu diren jaialdi edo ekitaldiak? Galdetu bestela inguruko aktore, margolari, bertsolari edo musikariei.

Azkenaldian, baina, kezkatzen gaituen jarrera sumatzen hasita gaude, behin baino gehiagotan entzun dugulako halako tokitan oso programazio aberatsa dutela, parte hartzen dutenak bokata pareta eta takilako 100 euroen truke aritzen direlako; edo ez dakit zein lagun prest egongo litzatekeela gastuen truke etortzeko... Lehen noizbehinkako erkarpen pertsonala zena, orain lan egiteko modu arrunt bilakatzeko ari delako susmoa dugu.

Gauzak horrela, non gelditzen da artistari zor zaion ordainsaria? Eta bere lanaren emariari, alegia, kulturari onartzen diogun balioa? Ez ote gara altruismoa eta krisia aitzakia hartuta artistaren lana balioz husten? Orduan, zein balio onartzen diogu kulturari? Hori baldin bada bidea, etorkizun beltza dugu aurretik. Zirrikitu arriskutsua, benetan.

h!tz
liburudenda

artekalea, 14
durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

Cie leandre
Rien à dire

Urriaren 5ean • 20:00etan

San Agustin
KULTUR
GUNEAK
DURANGOKO UDALAK

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net

IRAILAK 27-23:00etan 8/10 euro
TRIBUTU AL BARRIO
Musika kontzertua

IRAILAK 28 Txartelak Plateruenean salgai
EkoEguna
11:00etan: Elikadura ekologikoarekin lotutako aurkezpenak
13:00etan olio ekologikoaren dastaketa*
14:30etan osagai ekologikoekin prestatutako bazkaria*
(*Txartelarekin)

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300

> ITSASO ESTEBAN

Sabel-dantza eta dantza tribalak uztartzen dituen ikuskizuna eskainiko du Khuzayma taldeak, San Agustinen, bihar. Durangoko kulturgunean, 19:30ean da emanaldiaren hitzordua, eta *Gaia* izenburua du ikuskizunak. Naturari egiten dio izenburuak erreferentzia, eta ama lurrari eta emakumeari omenaldia egiteko sortu dute. Naturaren eta emakumearen konexioari buruzkoa da lana, eta berezitasun bezala, Polinesiako dantzak ere sartuko dituzte emanaldian.

Ama lurrari eta emakumeari omenaldia egiteko sortu dute naturaren eta emakumearen konexioari buruzkoa lan hau

Biharko saioan parte hartzera gonbidatu dituzte Donostia, Gasteiz eta Torrelavegako hainbat datzari lagun

Iaz eskaini zuen Khuzayma taldeak sabel-dantzako lehenengo ikuskizuna, Durangoko San Agustin kulturgunean. *Orient Express* izenburua zeukan. Emanaldi bat eskaini duten lehenengo aldia izan zuten hura, eta hasierako urduritasunak gaindituta, oso gustura jardun ziren. "Ikuskizun polita, originala eta entretenigarria" zela iritzita, ikusleek zoriondu egin zituzten taldekideak. Aurten, iaz parte hartu zuten dantzarietara, taldekide

Sabel-dantza, ama lurraren eta emakumearen arteko konexioaz

Bihar, Durangoko San Agustinen eskainiko du Durangoko Khuzayma sabel-dantza taldeak 'Gaia' lana



Iaz 'Orient express' izenburuko ikuskizuna eskaini zuen Khuzayma taldeak Durangoko San Agustinen. Oso ondo hartu zuten ikusleek. Javier Fernandez.

berriak batuko zaizkie. Donostia, Gasteiz eta Torrelavegako (Kantabria) artistak ere gonbidatu dituzte biharko emanaldian parte hartzera: Delirium eta Sebastopol taldeak, besteak beste.

Sabel-dantzaren barruko estiloak eta sabel-dantzaren aniztasuna ezagutzeko aukera eskainiko diete Khuzayma taldekoek, bihar San Agustin kulturgunera hurreratzen diren ikusleei.

Sabel-dantzaren aniztasuna ezagutzeko aukera eskainiko dute Khuzayma taldekoek

Durangoko Ibaizabal ikastolako Errota gimnasioko ikastaro batean hasi ziren elkarteko ki-deak sabel-dantza egiten, eta 20 lagun batzen dira orduetik, Khuzayma dantza elkartearen.

**> ZINEMA**

Ezkutuko errealitateak Arriolako pantaila handiko protagonista

Bilboko Cine Invisible jaialdiaren bosgarren ediziora aurkezturiko filmak eskainiko dituzte, asteburuan, Elorrioko Arriolan: bihar, etzi eta astelehean

> ITSASO ESTEBAN

Ohiko filmen lekuan, Bilboko Cine Invisible jaialdira aurkezturiko film sozialak eskainiko dituzte, zapatuan, domekan eta

astelehenen, Elorrioko Arriola Antzokian. Kultura Communication y Desarrollo Gobernu Kanpoko Erakundeak antolatzen du Bilboko Cine Invisible

jaialdia, eta atzo inauguratu zuten, Bilboko Alhondegian. Asteburuan Arriolara ere zabalduko dute irailaren 26tik urriaren 3ra Bilbon egingo duten jaialdiaren

uzta. Zapatuan, domekan, eta astelehenen eskainiko dituzte Arriola Antzokian, "komunikazio soziala eta kulturala sustatzeko" helburuz antolaturiko jaialdiaren bosgarren ediziora aurkezturiko filmak.

Dokumentalak, animazio lanak, eta bideoklipak eskainiko dituzte, besteak beste, Arriolako emanaldietan

Pentsamendu eta diskurtso bakarraren aurrean, kontakizun alternatiboa zabaldu gura dute

Lau film eskainiko dituzte bihar. Hiruk Kuba, Sahara eta Kolonbiako errealitateak hurreratuko dituzte, eta azkena arrantzaren ustiaketa masiboari buruzkoa lan bat da.

Domekan, zazpi lan eskainiko dituzte, 20:00etan hasita: garapen jasagarria, giza eskubideak edo aniztasun kulturala

dituzte film horiek ardatz, eta Argentinan zein Euskal Herrian ekoizitakoak dira.

Astelehenen ere, gai sozialei buruzko sei film eskainiko dituzte, Elorrioko Arriolan. Genero gaiekin lotura duten filmak emango dituzte egun horretan, eta baita kultur aniztasunari buruzkoak ere. Guatemala, Espainia, Kuba eta Peruko sortzaileen lanak izango dira asteleheneko protagonistak.

Askotariko diziplinak

Zinema areto konbentzionalak pantailatan ohikoak ez diren gaiak eta errealitateak erakusten dituzte Cine Invisible jaialdiko filmok, eta hainbat generotakoak dira, gainera: dokumentalak ez ezik, animazio lanak, bideoklipak eta fikziozko lanak eskainiko dituzte.

Pentsamendu eredu eta diskurtso bakarraren aurrean, errealitatearen bestelako kontakizuna egiten duten ikusentzuzkoak gerturatuko dizkiete Durangaldeko ikusleei.

Hiru emanaldietarako sarre-rik bi euro balioko dute, eta 16 urtetik gorako ikusleei zuzendurikoak dira film guztiak.

Gorka
Larrinaga
Agirre

Errekatxo
Auzo
Elkartea
(Abadiño)



Eusko Label errezeta: Hegaluzea kipula eta piper berdeagaz, eta entsalada • lau lagunentzat

OSAGAIK:

- Eusko Label hegaluzea
- Lau kipula
- Eusko Label piper berdeak
- Eusko Label letxuga bat
- Eusko Label tomate bi
- Txakolina
- Hiru tipulin
- Gatza
- Olioa



1 Errezeta hau osatzeko osagai nagusiak Eusko Label hegaluzea eta kipula dira. Kipulak oliotan egin, eta ondoren, hegaluzea gehituko diogu. Plater horri laguntzeko Gernikako piper berdeak erabiliko ditugu. Entsalada letxuga, tomate eta tipulinekin egingo dugu.



2 Hegaluzeari gatza bota, eta olio berotan dagoen kazolan, alde bietatik egingo dugu. Hegaluzea erretiratu, eta olioari berari kipula gehituko diogu. Kipulari gatz apur bat botako diogu izerdia bota dezan. Ondoren, kipula su txikian biguntzen utziko dugu.



3 Kipulari txakolin apur bat gehituko diogu biguntzen dabilen bitartean. Kipulak kolore egokia hartu duenean alde batera batu, eta hegaluzea gehituko dugu kazolaran. Hegaluzea kipulagaz estaliko dugu, eta apur batean sutan utziko dugu osagai eta zapore denak bateratu daitezen.



4 Hegaluzeari laguntzeko Eusko Label Gernikako piper berdeak egingo ditugu zartaginean. Azkenik, entsalada egitea bakarrik falta zaigu. Letxuga, tipulina eta tomatea zatitu, elkarrekin nahastu, eta gatzozpindu egingo ditugu.

Errezetaren bideoa ikusgai www.anboto.org webgunean



Goi-mailako
elikagaiak



Eusko Label produktuekin osatutako otzara irabazi gura baduzu, bidali mezua zure izen eta telefono zenbakiarekin zozketa@anboto.org-ra. Asteburuan jasotzen ditugun mezuen artean zozketatuko dugu.

Kirola

> SOKATIRA

“Goma gainean, munduan dagoen talderik onena Abadiño delako etorri gara hona”

Taiwango sokatira selekzioa Durangaldean egongo da urriaren 6ra arte; munduko txapelketan urrea irabazi gura dute, eta euren teknika hobetzeko Abadiño sokatira taldekoekin entrenatzen ari dira



Abadiño eta Taiwango tiralariak elkarrekin, martitzenean, Zelaietako probalekuan egindako entrenamenduaren aurretik.

> JOSEBA DERTEANO

Taiwango selekzioa 10 kide, bederatzi tiralari eta Vincent Chen entrenatzailea, Durangaldean dira astelehenaz geroztik. Abadiño sokatira taldeaz aste bitan entrenatu ostean, urriaren 6an itzuliko dira euren herrialdera.

Txinak eta Taiwanek hartueman korapilatsua izan dute urte askoan. Chen entrenatzaileak dio eurak taiwandarrak sentitzen direla, eta ez txinatarrak. Tiralari denak taiwandarrak dira, eta ordezkatzan duten selekzioa ere herrialde hartakoa da.

“Sokatirako sekretuak ikas tera etorri gara”, azaldu du Chenek. Oro har, maila oneko tiralariak dira, eta azkenengo munduko txapelketan, 560 kilora arteko mailan, urrea irabazteko zorian izan ziren, baina deskalifikatu egin zituzten: “Tristeia izan zen, etsipen handia hartu genuen”,

gogoratu du. Tiralari gazteak dira (18 eta 23 urte artekoak) eta egindako hutsetatik ikas teko gogoia dute. Horretarako etorri dira Abadiñora: “1997ko mundukotxapelketan ikusi nituen lehenengoz, eta asko gustatu zitzaidan Abadiñoen lana. Munduko talderik onena delako etorri gara hona”. Astelehene tik barikura egunero ari dira Abadiñoekin entrenatzen, Zelaietako probalekuan. Batez ere, tiratzeko orduan erabiltzen den teknika hobetu gura dute: “Ez dakit zer, baina Abadiño badu guk ez dugun zerbait. Tiratzeko estiloa, teknika eta gorputzaren kokapena; hori da ikasi eta hobetu gura duguna”. Goizetan gimnasia joaten dira.

2014ko otsailean Irlandan izango den Munduko Sokatira Txapelketan dute burua. Orduan izango dute Abadiño jaso (martitzeneko entrenamendua

bideo kameragaz grabatu zuten) eta Taiwanen landutakoa munduari erakusteko aukera. Batez ere, 560 kilora arteko mailan

Vincent Chen: “Ez dakit zer, baina Abadiño badu guk ez dugun zerbait; estiloa, teknika, kokapena...”

zentratuta daude: “Pisu horretan gorenera heldu gura dugu”, onartu du Chenek. Irabaziko balute, Taiwango selekzioak munduko txapelketa batean lortzen duen lehenengo urrea izango litzateke: “Dena dela, badakigu Abadiño tartean bada, ia ezinezkoa izango dena”, gehitu du irribarretxo batekin. Mundu mailan lortu gura duten

maila dagoeneko badute Asian. Asiako txapelketan hiru bider irabazi dute urrezko domina, horietako azkena iaz.

Tradizio handia Taiwanen

Vincent Chenen arabera, Taiwanen sokatirak mendetako tradizioa omen du, baina 80ko hamarkadara arte ez da modu profesionalean landu: “Tradizio herrikoa du. Beharbadaba ehun edo berrehun lagun ibiltzen dira sokari tiraka. Orain ezagutzen dugun sokatira mota, aldiz, 1981etik honakoa da”.

Iaz Erandion izan ziren Goerri taldeagaz. Orduko eta oraingo esperientziak oinarri hartuta, euskal herritarren gainean galdetu diegu: “Pertsona oso jatorrak dira. Hori bai, beti zaudete tragotan. Orain tragoa, entrenamendu ostean tragoa (barreak). Guk ere badugu ohitura hori, baina askoz txikiagoa”.



Abadiño eta Taiwaneko tiralariak entrenamendu saioan.



Vincent Chen eta Mikel Lasuen sokatirari buruz berbetan.

> ARETO FUTBOLA

Elorrioko taldeak Abadiño eta Berrizen aurka liga hasieran

Asteburu honetan areto-futboleko ligak hasiko dira Maila gorenean eta Lehenengo erreregionalean. Maila gorenean Elorrioko Buskantza B, Sasikoa B, Sapuberri, Kurutzia eta Presion Break dira Durangaldeko ordezkariak; Lehenengo erreregionalean, aldiz, Abadiño Gaztetxe, Dantzari eta Elorrioko Buskantza C.

Lehen jardunaldian derbi bi izango dira. Zapatuan Elorrioko Buskantza Bk Berrizko Presion Break taldearen kantxan jokatu du, eta domekan, Elorrioko C taldeak Abadiño Gaztetxieren kontra, etxean. Sasikoa, Kurutzia eta Dantzari taldeek ere etxean hasiko dute denboraldia.

> DUATLOIA

Triatloi eskolan zein duatloi herrikoian, izen-ematea irekita

Mugarra Triatloi Eskolak bosgarren denboraldiari ekingo dio. Benjamin aurrekoetatik hasi (2006an jaioak) eta gazte mailara arteko (1995ean jaioak) zuzenduta dago. Izen-ematea www.mugarratt.com webgunean egin daiteke. Bestalde, urriaren 6an Durangoko VII. Duatloi Herrikoia antolatuko du Mugarrak. Izen-ematea egunean bertan zein urriaren 5ean egin daiteke, 19:00etatik 21:00etara, Durangoko Gure Kabiya tabernan.

> ESKALADA

Nerabeentzako eskalada ikastaroa

Durango Kirolak erakunde publikoak 13 eta 17 urte arteko zuzendutako eskalada ikastaroa antolatu du. Eskolak astelehenean eta eguaztenetan izango dira, 17:00etatik 18:00etara, Landako kiroldegian. Ikastaroak hamar eskola aurreikusten ditu, eta prezioa 20 eurokoa da. Izen-ematea gurasoek egin behar dute Landako kiroldegian.

Rokodromoa erabiltzeko orduak ere zehaztu dituzte. Astelehene ostiralera 17:00etatik aurrera egongo da zabalik. Hileko kuota 7,5 euro da. Izen-ematea kiroldegian egin daiteke.

> MENDI DUATLOIA

Mallabian mendi duatloia antolatu dute domekan

Euskal Herriko zirkuituko bigarren proba lehiatuko dute 11:00etatik aurrera



Iazko mendi duatloiko parte hartzaileak korrika, ilaran.

> J.D.

Euskal Herriko mendi duatloien zirkuituko bigarren proba Mallabian jokatu dute domekan. Aurten hirugarren aldian izango du. 2011n zirkuitua sortu zutenetik Mallabiak ez dio hutsik egin urteroko hitzorduari. Mallabiko herri ekimenari esker antolatu dute ekitaldia.

Zirkuituko lehenengo proba Ibarren (Gipuzkoa) lehiatu zuten irailaren erdian, eta Mallabikoa denboraldiko bigarrena

izango da. Ondoren, beste zortzi mendi duatloia geratuko dira.

Nagusien lasterketa 11:00etan hasiko da plazatik, eta iazko ibilbide ia berari eutsi diote:

Urtero legez, 14:30ean, pilotalekuan bazkaria antolatu dute, eta 200 bat lagunek eman dute izena

lehenengo, korrika, 3,34 kilometroko zirkuitu bati itzuli bi (288 metroko desnibel positiboa) emango dizkiote duatloilariak; ondoren, bizikletan ibiliko dira 16 kilometro (670 metroko desnibel positiboa); amaitzeko, korrika zirkuituari beste itzuli bat emango diote. Korrika egiteko tartetan, hasierako metroetan daude aldaparik latzenak. Bizikletako ibilbideak aldaketa txiki batzuk izan ditu, baina, oro har, iazko bera da. Bizikletan men-

diko bideetatik, lurbideetatik, ibiliko dira parte hartzaileak. Lasterketa irabazteko fabrikatuen artean Juan Mari Urizar (zirkuituko liderra gaur egun) eta Unai Yus daude.

Gaztetxoek duatloia

Iaz hasitako bideari jarraituta, aurten ere 13 urtera arteko gaztetxoek zuzendutako duatloia bat prestatu dute. Adin tartean arabera, maila bitan banatuko dituzte: 8 urtera artekoak eta 9-13 urte artekoak. Proba horiek 10:00etan hasiko dira. Izen-ematea egunean bertan egin daiteke, probak hasi baino ordu laurden lehenagora arte.

Antolatzaileen helburua, herriarren lanagaz sortu duten mendi duatloia ekimen parte hartzaile izatea da. Horregatik, proba amaitzen denean, 14:30 inguruan, herri bazkaria izango dute Mallabiko pilotalekuan. Guztira, 200 bat lagunek eman dute izena bazkaritarako.

EGITARAUA

- **10:00etatik aurrera:** 8 urtera artekoen, eta 9-13 urte artekoen duatloiak hasiko dira.

- **11:00etan:** Mendi duatloia hasiko dute gizonetan zein emakumeetan.

- **14:30ean:** Bazkaritara batuko dira pilotalekuan.

IBILBIDEA

- **Korrika:** 6,68 km. Itzuli bi zirkuituari (288 metroko desnibel positiboa).

- **Bizikletan:** 16 kilometro.

- **Korrika:** 3,34 km. Itzuli bat zirkuituari.

ADITUAREN TXOKOA



Gotzon Gomez

Errugbi entrenatzailea

Ziklo aldaketa

Sarritan entzuten dugun esaldia da ziklo aldaketa. Kasu honetan belaunaldi berriari ongi etorria emateko erabiliko dute.

Kluba sortu zenean jokalar gehienak 60. hamarka ingurukoak ziren. Gehiengo handi batek ez zuen errugbian inolako esperientziarik. Sasoi hartan zelairik ere ez genuen, eta ahal zen tokian jokatu behar!

70eko hamarkadako belaunaldiak beste pauso bat eman zuten: oinarriko teknikak, jokamoldeak... Ortzi-oren etorreragaz belaunaldi berria etorri zen, 80ko hamarkadako: belaunaldi gaztea, indartsua eta taldeari kohesioa eman ziona. Senior taldearen emaitzarik onenak ordukoak dira.

Iaz, eta transizio sasoiaren sarturik, hainbat jokalar esanguratsuk taldea utzi behar izan zuten Durango Iarduyan, eta emaitzak ez ziren onak izan, baina taldea egitea lortu zuten. Orain momentua heldu zaie 90. hamarkadako. Jende gaztea dugu, baina eskarmentu handikoa. Gazte heldu dira Ohorezko B mailara, horrek dakarrenagaz: talde gogorrak aurrean, kasu askotan atzerritar ugari gaz...

Baina jokalar hauek gauza ederra dute, asko errugbi eskolako kideak izan dira. Txikitatik bizi izan dute errugbiaren sukarra. Orain aurrera egiteko unea heldu zaie. Uste dut, esku onetan dugula taldea. Urriaren 12an ikusiko dugu esandakoa errealitatea bihurtzen den. Ni itxaropentsu nago. Animo mutilak eta animo Tata.

Auto klasikoek lasterketa gaur eta bihar Durangon

Autoak Landako Gunetik irtengo dira

> J.D.

Clásicos Durango eskuderiak auto klasikoek 13. rallya antolatuko du barikuan eta zapatuan. Gutxienez 25 urte dituzten (batzuk 60ko hamarkadakoak) autoek parte hartuko dute. 40 parte hartzaileak gaur 16:00eta-

tik 21:00etara ikusi ahal izango dira Landako Gunean. Ondoren, lasterketa hasiko da. Bigarren saioa zapatuan 11:00etan hasiko da Landako Gunetik. Proba horietan autoek ezin dute 50 kilometro orduko abiadura gainditu, eta orientazioan dago gakoak.



Durangoko auto klasikoek iazko probako irudi bat.

URTXINTXA
HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK



Andra Mari kalea, 9 DURANGO Tel.: 946 815 017

momotxo
t a b e r n a

Plateruen plaza, 12
48200 Durango
Tel.: 946 811 006Bulegorako
zigiluak
Fotolitoak

Betikoak
flexografía

946 202 241

Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA

> MENDI LASTERKETA

Sorginen Lasterketa Apatan hasi eta amaituko da aurten

Zapatuan Sorginen Lasterketaren seigarren ekitaldia lehiatuko dute Atxondon



Oier Ariznabarreta irabazteko faboritua da gizonetan.

> J.D. Nobedade dezente ditu aurtengo Sorginen Lasterketak. Axpen beharrea, Apatan hasi eta amaituko da, eta ibilbidea moldata egin dute. Horrez gainera, 17 urtera arteko gaztetxoei zuzendutako proba laburrak antolatuko dituzte.

Lasterketa Apatan hasiko da bihar, 16:00etan. Hasiera eta helmuga Apatara tokialdatuta, hainbat helburu bete gura ditu

Durangaldeko kirol taldeak. Batetik, orain arte, Sorginen Lasterketa Axpe eta Arrazolatik igarotzen zen, baina ez Apatatik. Horrela, aurten hiru retatik igaroko da, eta bide batez, Atxondo herriari egindako omenaldia ere bada, iaz, sortu zeneko 50. urteurrena izan zelako. Bestetik, lasterketa hasi eta berehala zegoen aldapa gorrora (3. kilometroan) geroago aurkituko dute korrikalariek.

Ibilbideari dagokionez, 27 kilometro ditu, eta Zabalandira heldu arte ohiko bidea egingo dute parte hartzaileek: Apata, Marzana, Axpe, Larrano eta Anboto magala (Pol-Pol). Zabalandira heltzean, ohi moduan Topera jaitsi beharrea, aurrera jarraituko dute. Beraz, aurten ez dira Topetik Besaidera igoko. Zabalanditik Lurgorrira joango dira, eta handik Tellamendira (835 metroko garaiera), Besai-

dera heldu aurretik. Besaidetik Topera jaitsiko dira, eta handik zuzen joango dira Apatara.

Parte hartzaileei dagokionez, gizonetan Oier Ariznabarreta durangarra da irabazteko faboritua. Iaz ere berak irabazi zuen. Emakumeetan Abadiñon bizi den Silvia Trigueros da irabazteko hautagai nagusia. Maila absolutuko aurreneko hirurek, herriko onenak, eta gazte mailako onenak garaikurra eta askotariko produktuez (probako kamiseta, sagardo botila, janaria...) beteriko poltsa jasoko dute. Horrez gainera, lasterketa bukatzen duten denen artean hainbat opari zozketa-tuko dituzte: hamar ardo botila, bost gazta, kirol jantziak... Axpeko plazatik igarotzen den aurrenekoak ere sari berezi bat jasoko du.

Zabalanditik zuzen Lurgorrira joango dira, eta handik Tellamendira; horixe da ibilbideko aldaketa nagusia

Gaztetxoen lasterketa

Aurten, gaztetxoei begirako lasterketak ere prestatu dituzte Apatako kaleetan zehar. Talde bitan banatuko dituzte: 11 urtera artekoak, eta 12tik 17ra artekoak. Lehenengoek 600 metroko zirkuituari itzuli bat emango diote; bigarrenak, itzuli bi. Parte hartzaile denentzako opariak egongo dira. Izen-ematea egunean bertan egin daiteke, 15:30etik 16:15era, Apatako plazan. Lasterketak 16:30ean hasiko dira.

> SASKIBALOIA

Iazko sailkapena hobetzea helburu Tabirako Baqueko talde nagusiek

Garaiera faltari aurre egiteko osagaiak presioa eta intentsitatea dira



Tabirako Baque emakumeen talde nagusia.



Tabirako Baque gizonen talde nagusia.

> J.D.

Joan zen barikuan Tabirako klubeko talde guztien aurkezpen ofiziala egin zuten Landako kiroldegian. Aurten 16 talde federatu, eta eskolarteko 36 talde ditu Tabirakok.

Emakumeen talde nagusian Jesus de Vicentek (44 urte, Durango) Alberto Molina ordezkatu du entrenatzaile karguan. Iaz arte Tabirakoko kirol zuzendaria izan zen de Vicente, eta guztira 26 urte daramatza klubean.

Tabirako Baque taldeak iazko oinarriari eutsi dio. Bi-hiru jokalarik utzi dute taldea, eta hutsune horiek iaz lehen taldeagaz aritu ziren junior jokalariek bete dituzte. Aurten lehen urteko bost senior eta junior bat dituzte.

Talde oso gaztea da, iaz baino gazteagoa. Iazko antzera garaiera falta dute; oro har, talde

txikia da: "Joko azkarrari etekina ateratzen saiatuko gara, asko presionatu eta arerioak itotzen", azaldu du de Vicentek. Iaz oso denboraldi ona egin zuten, eta taldean aldaketa askorik ez dagoenez, goian ibiltzea dute helburu: "Dena lortzeko borrokatuko gara. Play-off faserako sailkatzea dugu helburu".

Gizonen taldean sei jokalarik utzi dute taldea, eta horien ordezkariak, bost berri dituzte: Iaz saskibaloia utzita izan zuen Ruben Arteaga eta Arkaitz Gurrutxaga hegalekoa, eta baita Xabier Balmaseda hegalekoak ere. Beste bi jokalaririk junior taldeetatik heldu dira: Xabier Arroitauregi hegalekoa eta Imanol Orue-Mazaga pibota.

Denboraldi-aurre ona osatzen dabilta. Esaterako, euren mailako taldeen kontra lehiatuta, Baque Torneoa irabazi dute. Emakumeen antzera, garaiera falta zaie. Defentsa laneko intentsitatea eta hegalekoek barrualdean eskaini dezaketan laguntza dira horri aurre egiteko armak. Iazko emaitzak hobetu, eta onen artean aritzea dute helburu.

> AGENDA**> FUTBOLA****OHOREZKO MAILA****Iurretako-Santurtzi**

· Zapatuan, 17:00etan, Larrakozelai futbol zelaietan.

> ARETO FUTBOLA**HIRUGARREN MAILA****Elorrioko Buskantza-Buruntza Clinica**

· Zapatuan, 18:00etan, Elorrioko udal kiroldegian.

Mallabia-Laskorain

· Domekan, 17:00etan, Zaldibarko udal kiroldegian.

MAILA GORENA**Presion Break-****Elorrioko Buskantza B**

· Zapatuan, 17:00etan, Berrizburu kiroldegian.

Sasikoa B-Muskiz

· Zapatuan, 18:30ean, Landako kiroldegian.

Kurutziaga-Sestao

· Zapatuan, 16:00etan, Landako kiroldegian.

LEHEN ERREGIONALA**Dantzari-Otxartabe**

· Domekan, 19:00etan, Iurretako Lanbide Heziketa Institutuan.

Elorrioko Buskantza-**Abadiñoako Gaztetxiek**

· Domekan, 12:15ean, Elorrioko udal kiroldegian.

> PILOTA**OLAZAR PILOTA TXAPELKETA****Lau Terdian:**

- Errandonea-Iurretagoiena

Binaka:

- Albarado-Landaburu / Larrañaga-Urresola

Urriaren 3an, 21:30ean, Zaldibarko Olazar pilotalekuan.

SAN FAUSTO ZESTA-PUNTA TXAPELKETA

- Mutriku-Donibane Lohizune

- Andoain-Bartzelona

Zapatuan, 18:00etan, Durangoko Ezkurdi Jai-Alai pilotalekuan.

- Biarritz-Gernika

Domekan, 11:30ean, Durangoko Ezkurdi Jai-Alai pilotalekuan.

> IKASTAROA**ESKALADA**

Gazte eskalada ikastaroa, eta ondoren, rokodromo gazte taldea sortzeko ekimena.

13 eta 17 urte arteko gazteei zuzendua. Durangoko kiroldegian. Asteleheneretan eta eguaztenetan, 17:00etatik 18:00etara. 10 saio, 20 euro. Izen-ematea gurasoek egin behar dute Landako kiroldegian.

ROKODROMOA

Rokodromoaren erabilera.

Asteleheneratik ostiralera, 17:00etatik aurrera. 7,5 euro hileko. Izen-ematea Landako kiroldegian egin daiteke.

➤ Aisialdia

➤ **AMALURRA**

Oizeko basoan garbiketa eta biziberritze lanak sustatu ditu aldundiak.

Oiz mendiko basoa biziberritu dute, suteetatik babesteko

Basoa biziberritzeko, gizarte bazterkeria arriskuan dauden zazpi lagunek egin dute behar; Bizkaiko Foru Aldundiaren eta La Caixaren arteko hitzarmen batek ahalbidetu du ekimena

➤ MARKEL ONAINDIA

Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak eta La Caixako Gizarte Ekintzak Oiz mendiko basoa biziberritzeko lanen bigarren fasea amaitu dute udan. Horretarako, gizarte bazterkeria arriskuan dauden zazpi pertsonari eman diete lana. Bi erakundeek 2006tik daukaten lankidetzaren hitzarmenaren barruan sartu da proiektua. Berrizko ingurua lehengoratzeko bigarren fase horrekin jarraipena eman diote 2011n hasitako lanari, eta egitasmoa amaitu da horrela. Helburu argia izan du: suteen aurkako prebentzioa.

Ametzak landatu dituzte

Lehenengo fasean, mendiaren 50 hektarearen perimetro-itxiera egin zen, belar-sastrakak garbitu ziren, eta basoberritze partziala egin zen ametzekin. Bigarren fase honetan, gainerako azalera osoa basoberritu da, 45 eta 50 hektarea artean, eta babes-itxiturak ezarri dira.

Basalan Foru Sozietate Publikoaren ardura izan da lan horietarako gizarte bazterkeria arriskuan dauden pertsonak hartzea. Azaldu dutenez, zazpi lagun izan dira, gehienak 30 urtetik gorako helduak, eta menpekotasunen kontrako ohiko programetatik etorriak. Baina, egon da 30 urtetik beherako gazterik ere, prestakuntza baxuagaz, eta aldundiaren tutoretzapean egon dena.

Ekimenaren balioaz

Nekazaritza Saileko diputatuak, Irene Pardok, balioa eman dio aldundiaren eta La Caixaren arteko hitzarmenari. "Bizkaian degradatuta egon diren eremuak basoberritzen lagundu du hitzarmenak", adierazi du Pardok. Eremu gehienak suteen ondorioz kaltetuta egon dira. Beharginei etorkizunerako aukera bat eman dietela ere uste du: "Lan hori gizarte bazterkeria arriskuan egon diren pertsonen egin dute; honelako proiektuen bitartez, lan-merkatu sartzeko aukera

izango dute". Helburu bi dauzka egitasmoak, eta norabide hori ere ondo baloratu du Pardok: "Arrazoi bikoitzagatik nago pozik, zeregin sentikor eta garrantzitsuak betetzen dituelako, eta lan hori lankidetzaren bitartez egiten dugulako".

La Caixako lurralde zuzendari Juan Pedro Badiolak hartutako konpromisoaz berba egin du: "Aurten hitzarmen hau berrizteak, argi eta garbi erakusten du bi erakundeok bazterkeria arriskuan dauden kolektiboak laneratzeko, eta natur guneak hobetu eta kontserbatzeko konpromisoa berresten dugula". Aurten 400.000 euro gizarte ekintzetan inbertituko ei ditu banketxeak.

Azkeneko sei urteetan 33 proiektu garatu dituzte hitzarmenari esker, eta 128 lagunek egin dute lan proiektu horietan.

Aurten, Oiz mendiko basoan eginda-koaz gainera, beste zazpi egitasmo eroan dituzte aurrera, eta bultzatzaileek azaldukoaren arabera, gehienak basoak berritzeko lanak izan dira.

Berrizko ingurua lehengoratzeko bigarren fase honekin jarraipena eman diote 2011n hasitako lanari

Bigarren fase honetan, gainerako azalera osoa basoberritu da, 45 eta 50 hektarea artean

33 proiektu garatu dituzte hitzarmenari esker, eta 128 lagunek egin dute lan proiektu horietan

laguntzaileak





JATETXE GIDA

ÑAM!

MENU BEREZIA

Sarrerakoak (2 aukeran)
Entsalada
Patata frijituak
Zatitutako txuleta errea
Postrea
Ogia eta edaria

60€
bikoteko
(BEZa barne)

ÑAM!

JULIANTXU

Iturriza, 2 BERRIZ
Tel.: 946 824 077

Karta. Txuleta errea.
75 lagunentzako jangela.



PEDRO JUAN

San Antonio, 1 BERRIZ
Tel.: 946 826 246

Eguneko menua. Karta. Domeka,
astelehen eta martitzen gauetan itxita.

ÑAM!**ÑAM!**

PLATERUENA Kafe Antzokia

Landako etorbidea, 4
Tel.: 946 030 300

Eguneko menua asteleheneretik zapatara.
Taldeentzako menu adostuak. Askariak.



NERE JATETXEA

San Agustinalde, 4 DURANGO
Tel.: 946 203 910

Eguneko menua. Eguerdietan: entsaladak,
razioak eta plater konbinatuak.
Ostegunetik igandera karta berezia gauero.



**Profesional onenak
zure zerbitzura!**



HURI BARRENA

Huribarrena, 8 OTXANDIO
Tel.: 945 450 125

Karta. Ardoak. Eguneko menua.
Asteburuetan menu berezia.

ÑAM!

Inmobiliariak



ETXEBIZITZAK ALOKAIKUAN

DURANGO

- 2, 3 eta logela bakarrekoko etxebizitzak alokairuan

ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO

- DURANGO: 2, 3 eta logela bakarrekoko etxebizitzak alokairuan.

ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO

- ARTEKALE: 8 etxebizitzan eraikuntza hastera goaz. 2 logela eta logela bakarrekokoak. Trastelekuarekin. 140.000 €tik aurrera.
- DURANGO: 2 logela, egongela, komuna, sukaldia eta despentsa. Berriztatuko. 114.000 €
- ERDIALDEAN: 2 logela, 2 komun, egongela eta sukaldia. Berria eta guztiz jantzia. Garajea eta trastelekua.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, 2 komun, egongela eta sukaldia balkoiarekin. Trastelekua eta garajea.
- FRANZISKO IBARRA: 3 logela, sukaldia, office-a, 2 komun eta egongela. Garajea eta ganbara.
- ERDIALDEAN: 123 m2. Etxe osoak kanpora ematen du. Berriztatuko. Zonalde onean kokatua.
- ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO: 2 logela, 2 komun eta sukaldia amerikarra eta egongela. Garaje itxia eta terraza izugarriak.
- BARRENKALE: Duplexak. Eraikuntza berria. Berehalako banaketa. 2 logela, 2 komun, egongela eta sukaldia amerikarra.

LEKEITIO

- 3 logela, komuna, sukaldia eta egongela terrazarekin. Garajea. Auzune pribatua. Igerilekua eta frontoia.

ABADIÑO

- ITURRITXO: Logela bakarrekoko apartamentua. Sukaldia amerikarra egongelarekin, komuna eta eskegitokia. Ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.
- 2 logela, 2 komun, sukaldia-jangela, egongela eta eskegitokia. Garajea, trastelekua eta ganbara. Ikusgarria.

ATXONDO

- 2 logela, komuna, sukaldia balkoiarekin, egongela eta bainugela. Etxe osoak kanpora ematen du. Berria ematen du.

ZALDIBAR

- 3 logela, komuna, sukaldia eta egongela balkoiarekin. Guztiz berriztatua. Trastelekua.

LUR SAILAK SALGAI

BERRIZ

- 10.000 m2-ko lursaila. Sarbide ona.

IURRETA

- 5 hektareako lursaila. Abeletxe bat egiteko aukera dago.

MATIENA-ABADIÑO

- 2.000 m2-ko lursaila. Laua eta frutarbolekin.

OLETA (OTXANDIO)

- 2.300 m2. Fruta-arbolak eta abeletxea ditu. Erreka ondoan kokatuta dagoen lursaila.

EUBA

- 3000 m2 eta 3.455 m2-ko lursailak. 2 lurzati bakoitzean bifamiliarra eraikitzeko aukerarekin.

ABADIÑO

- Bifamiliarra eraikitzeko 1.100 m2-ko lursaila salgai.

DURANGO

- Lursail erdia familia biko etxebizitza eraikitzeko. Proiektua barne.

ZORNOTZA

- LARREA: 27.000 m2-ko lursaila.

BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

DURANGO

- Adosatua. Guztiz jantzia. Erdi berria estreinatuko.

TXALETAK

- DURANGO-ERRETENTXU: Salgai. Adosatua, etxebizitza bakarrekokoak eta bikoak.
- ABADIÑO, OTXANDIO, etab.

ETXEBIZITZAK SALGAI

- ALLUITZ: Halla, sukaldia, egongela-jangela, 4 logela eta 2 komun. Ganbara eta garaje itxia.
- ANDRA MARIA: Halla, sukaldia, jangela, egongela, 2/3/5 logela, 2 komun eta egongelatxo.
- ANTSO ESTEGIZ: Halla, egongela, sukaldia, 2 logela eta komuna.
- ARKOTZA: Halla, sukaldia, egongela, 4 logela, komuna eta bainugela. Ganbara.
- ASKATASUN ETORBIDEA: halla, sukaldia, egongela, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Garaje aeta ganbara.
- BARRENKALEA: Halla, sukaldia, egongela, komuna eta 2 logela. Ganbara.
- ERROTARITXUENA: Estreinatuko. Halla. Sukalde jantzia, logela 1 edo 2, egongela eta 2 komun. Eskegitokia. Terraza. Garajea aukeran.
- EZKURDI: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3/4 logela eta 2 komun.
- F.J. ZUMARRAGA: Halla, 2 egongela, sukaldia, 3 logela eta komuna.
- JUAN ITZIAR: Halla, egongela, sukaldia, 2/4 logela eta komuna. 2 despentsa/trasteleku eta sotoa.
- MONTEBIDEO: Halla, egongela-jangela, sukaldia, 5 logela eta 3 komun. Terraza. Ganbara.
- MURUETATORRE: Halla, sukaldia, eskegitokia, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Ganbara eta garajea.
- OÑITURRI: Halla, sukaldia, eskegitokia, sukaldia, 3 logela, egongela-jangela eta 2 komun. Balkoia. Ganbara eta garajea.
- PLATERUEN PLAZA: Halla, egongela, jangela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. Garajea eta trastelekua.
- SAN AGUSTIN: Halla, sukaldia, 5 logela, egongela eta 3 komun.
- SAN IGNAZIO: Halla, sukaldia, egongela-jangela, 3 logela eta komuna. Balkoia.
- SASIKOA: Halla, sukaldia, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea.
- SASIKOA: Halla, sukaldia, egongela-jangela, 3 logela eta komun 2. Ganbara eta garajea.
- TXATXIENA: Halla, sukaldia, despentsa, egongela-jangela eta 3 logela. Balkoia. Ganbara eta garajea.
- UNDATORRE: Halla, sukaldia, 3 logela, egongela eta komuna.
- ABADIÑO: Arlozabal: Halla, egongela, sukaldia, logela 2 eta komun 2. Terraza handia.
- ABADIÑO-FERIALEKUA: Halla, sukaldia, 3 logela, egongela eta komuna. Balkoi handia. Ganbara eta garajea.
- ABADIÑO-MATIENA: Halla, sukaldia, egongela 2/3 logela eta komuna. Ganbara.
- ABADIÑO-MUNTSARATZ: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Ganbara. Egoera onean. Igogailua.
- BERRIZ: Halla, sukalde jantzia, egongela-jangela, 2 logela eta komuna. Balkoia. Jantzia. Garajea eta trastelekua.
- BERRIZ: Duplexa. Halla, sukalde jantzia, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Erdi jantzia. Garaje itxia eta trastelekua.
- BERRIZ: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 4 logela eta 2 komun. 2 balkoi. Ganbara. Eguzkitsua. Etxe osoak kanpora ematen du.
- ELORRIO: Berreraikituko etxea, lursailduna.
- IURRETA: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia office-arekin, despentsa, 3 logela eta komun 2. Terraza itxia eta trastelekua. Guztiz berriztatua.
- IURRETA: Arriandi auzoa. Halla, sukaldia, egongela, 3 logela eta komuna duxarekin.
- MAÑARIA: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun.

ETXEBIZITZAK SALGAI

ABADIÑO (Arankurri)



- Eraiki berria dagoen bi familiarentzako txaleta. 500 m2-ko lursaila. 273 m2. Sotoa, lehenengo solairua, eta etxabe estalia. Kontserbazio eta dekorazioa egoera ezin hobea. Aukera paregabea.

ASKATASUN ETORBIDEA



- Aukera paregabea: 20 etxebizitza dituen eraikina eraikitzen. 3 logela, egongela, sukaldia, bainugela, komuna, terraza, eta garaje bikoitza eta itxia. BEZa barne. 300.000€ (Saltzen diren lehen bost etxebizitzentzako eskaintza).

MARTXOAREN 8KO KALEA



- Erdi berria. 73 m2. Logela 2, komun 2, egongela handia eta sukaldia eskegitokiarekin. Balkoi 2. Garajea eta ganbara. 210.000€.

SAN MARTIN ATARIA



- Durango erdigunean. Etxe osoak kanpora ematen du. 85 m2. 5. solairua. 3 logela, komun 2 eta balkoi handia. Berogailua. 195.000€.

ASKATASUN ETORBIDEA



- Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua. 3 logela, egongela, sukalde jantzia, despentsa eta komun 2. Garajea eta ganbara. 265.000€.

www.inmoduranguesado.com

ETXEBIZITZA BERRIAK ESTREINATZEKO

- ZALDIBAR: Kurutzazar plaza/Solonagusia. Garajea eta trastelekuarekin. 118.000€-tik aurrera.
- IURRETA: estreinatuko. 1,2 eta 4 logela. 2 komun. Ganbara. Garajea aukeran. 160.000€.
- ATIKOA: berria. Estreinatuko. 3 logela eta 2 komun. Terrazak. Trastelekua eta garajea aukeran. 212.000. BEZa barne.

AUKERA

- SAN ROKE: 90 m2. 3 logela eta 2 komun. Terraza. Igogailua. Ganbara eta garajea. Eguzkitsua. 220.000€.
- MURUETATORRE: 90 m2. 3 logela eta 2 komun. Terraza. Garajea aukeran. 180.000€
- ARAMOTZ: 3 logela. Eguzkitsua. Berogailua. 119.600€.
- IURRETA: Bixente Kapanaga. 3 logela eta egongela. Terraza. Igogailua. Garaje itxia. 180.000€.
- DURANGO: Logela 2, egongela eta komuna. Igogailua. Bizitzaren sartzeko prest. 116.000€.
- ZALDIBAR: 3 logela. Eguzkitsua. Trastelekua. 84.000€.
- MATIENA: 3 logela eta egongela. Ganbara. Altuera ona. 126.000€.
- OIZ: 3 logela, egongela eta sukaldia. 3 balkoi. Igogailua.
- BERRIZ: Iturria. 90 m2. 3 logela eta komun 2. Terraza. Despentsa. Berogailua. Igogailua. Ganbara eta garajea. 211.200€.

ETXEBIZITZAK SALGAI

- TXIBITENA: 3 logela eta 2 komun. 2 terraza. Sukaldia eskegitokiarekin. Ganbara eta garajea. Ikuspegi ederra. 266.300€.
- MATIENA: Trañabarren. 3 logela eta komun 2. Terraza. Eguzkitsua. 195.000€.
- SAN IGNAZIO: 105 m2. Erdi berria. 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea. 260.000€.
- DURANGO: Logela 2, egongela eta sukalde-jangela. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua. 149.652€.
- ASKATASUN ETORBIDEA: erdi berria. 3 logela. Etxe osoak kanpora ematen du. Trastelekua. Garajea. 272.500€.
- MONTEBIDEO: 3 logela eta egongela. Igogailua.
- ATXONDO: 90 m2. 3 logela, komun 2, egongela eta sukaldia despentsarekin. Terraza. Ganbara. Eguzkitsua. 186.000€.
- FRANZISKO IBARRA: Logela 2, komuna eta egongela. Eskegitokia. Ganbara eta garajea. 235.000€.
- TABIRA: Erdi berria. 2 logela eta 2 komun. Trastelekua eta ganbara. 252.400€.
- SAN IGNAZIO: 3 logela, 2 komun eta egongela. Terraza. Ganbara eta garajea. Igerilekua. Eguzkitsua. 240.000€.
- DURANGO: Duplexa. Erdi berria. 3 logela eta 2 komun. Garajea.
- BERRIZ: Txaleta. 365 m2. Estreinatuko. 1.270 m2-ko lursaila.

LOKALAK

- F.J. de ZUMARRAGA: 100 m2. Egokitua. Alokairuan.
- KURUTZIAGA: Egokitua. 50.000€.
- LANDAKO: 180 m2. Egokitua. Alokairuan.
- MATXINESTARTA: 70 m2. Egokitua. 600€.
- ARTEKALE: Egokitua. 180€.
- IBAIZABAL: 40 -100 m2. 400€.
- SASIKOA: 60 m2. Egokitua. 600€.
- ARTEKALE: 45 m2. Berria. Negozioa martxan. 120.000€.
- LANDAKO: 50 m2. Alokairuan.
- J.A. AGIRRE: 125 m2. Alokairuan edo salgai. Negozioa martxan. 900€.

AGENDA

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **94 623 25 23** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



Irailaren 28an, 20:00etan,
Berrizko San Migel baselizan

Juan Carlos Irizar

Piano-jotzaile oñatiarraren kontzertua izango da, bihar, 20:00etan hasita, Berrizko San Migel baselizan. Ibilbide luze eta oparoko musikaria da Irizar: pianista ez ezik, hainbat orkestra eta musika bandaren zuzendari ere izan da.

Erakusketa

:: DURANGO

Urriaren 6ra arte, **Ignacio Ruiz de Arkauteren lanak**, Arte eta Historia Museoa.

:: ELORRIO

Irailaren 30era arte, **Enrique Larramendiren lanak**, Katzarro jatetxean.

:: ZORNOTZA

Irailaren 29ra arte, **Bosteko**, Zelaieta zentroan.

Bertso afaria

:: ZALDIBAR

Irailaren 27an, 21:00etan, **Sustrai Colina eta Miren Amuriza**, Goierrri auzoan.

Ikastaroa

:: ABADIÑO

Banarte antzerki taldearen ikastaro multidiziplinarrean, maskara ikastaroan eta antzerki tailerrean izena emateko epea zabalik.

Urritik maitzera, Emakumeentzako jabe-kuntza Eskola: Coaching: hobekuntza pertsonalerako tresnak; Zaindu zaitez: amama zain-tzaileentzako ikastaroa; Kateatu zaitez teknologia berrietan; Emakumeok eta euskal literatura; Munduko emakumeen literatura; Dantza-mugimendu terapia eta dantza sortzailea; Dantza afrikarrak; Pelbis-zorua hezi eta gogortzeko ikastaroa; mindfulness; Tertulia moreak; Autodefentsa feminista. Izen-ematea: udaletxean, Errota edo Txanporta kultur etxeetan, edo 'berdintasuna@abadiano.org' helbidean.

:: BERRIZ

Irailetik abendura, **Emakumeen jabe-kuntzarako Eskola 2013:** Emakume ahotsak euskal literaturan; Jendaurrean hitz egiteko teknikak;

Nola konpondu gatazkak nire eguneroko bizimoduan; Ai nire maitea, maite nazazu gutxiago baina hobeto; Topaketa kontatuz eta munduko emakumeen literatura. Zabalik dago izen-emate epea, udaletxean.

:: DURANGO

2013/2014ko Emakumeen jabe-kuntzarako Eskola 2013: Emakumeen nortasuna eta subjektibotasuna; Gizartean eta politikan parte hartzea; Munduko emakumeenganako elkartasuna eta hartu-emanak; Kultura berri bat sortzea; Osasuna eta generoa. Izen-ematea urriaren 2tik 11ra, Pinondo Etxean.

:: ELORRIO

Sevillan eta eskulan ikastaroak, Iturri kultur etxean. Izen-emate epea zabalik.

:: ZALDIBAR

Urritik abendura arte, Emakumeentzako jabe-kuntza Eskola. Pentsamendu feminista; Eraldaketa feminis-motik; Ezetz esaten ikasi nahi duzu?; Txalaparta ikastaroa eta Posta elektronikoa; Izen-emate epea zabalik, udaletxean.

Musika

:: BERRIZ

Irailaren 28an, 20:00etan, **J. Carlos Irizar**, San Migel ermitan.

:: DURANGO

Irailaren 27an, 23:00etan, **Tributo al barrio**, Plateruenean.

Antzerkia

:: ELORRIO

Urriaren 11n, 22:00etan, **Biba zorrixen izurritie!**, Arriolan.

:: ZORNOTZA

Urriaren 4an, 20:00etan, **Munduari itzulia**, Zornotza Aretoa.

Batzarra

:: DURANGO

Eguenetan, 19:00-21:00, Al-Anon elkartearen batzarrak, Landako kirol-degiaren behealdean. "Zure senide edo lagunak edateko daukan erak txaro sentiarazten bazaitu, Al-Anon taldeak lagundu zaitzake". 944 24 24 98

Dantza

:: DURANGO

Irailaren 28an, 19:30ean, **Khuzayma taldearen emanaldia**, San Agustinen.

Urriaren 1ean, 18:30ean, **Aiko taldearen Dantzaldi Ibiltaria**, Plateruenean.

Jaiak

:: IURRETA

Irailaren 27an, 17:30ean, **umeentzako herri kirolak**, Amilburu plazan. **19:00etan, Pottola antzezlan**, Ibarretxe kultur etxean. **21:30etan, Asto-probak. 22:00etan, Alma navarra Alma latina ikuskizuna**, Askondon. **22:30etan, Krome, Itziarren Semeak eta Arkada Social.**

Irailaren 28an, 12:00etan, **txapliguak Montoitik, eta ondoren, kalejira. 12:15ean, umeentzako ikuskizuna**, Amilburun. **14:00etan, gazte bazkaria**, plazan. **17:30ean, IKT-Santurtzi futbol partidua**, Larrakozelai futbol zelaian. **18:00etan, Donien-atxa altxatzea. 20:00etan, Luhartz taldeagaz erromeria**, plazan.

Irailaren 29an, 10:00etan, **Dantzari eta Agintarien kalejira**, Montoitik plazara. **11:10ean, meza nagusia. 12:30ean, Bertso saioa: Gorka Lazkano, Eneko Abasolo 'Abarkas' eta Erika Lagoma. 16:00etan, Mus txapelketako finala** plazan. **17:00etan, haur dantzaldia**, Amilburun. **17:30etan, asto-probak. 19:00etan, Dantzari-dantza, eta neskek egindako Soka-dantza.**

Irailaren 30ean, 12:00etan, **Kantuz kantu kalejira. 17:30ean, umeen dantza erakustaldia. 18:30ean, ume eta gazteentzako disko festa**, Amilburun

Urriaren 2an, 19:30ean, **Batzarra 12etan antzezlan**, Ibarretxe kultur etxean.

Urriaren 3an, 09:00etan, **Iurretako azoka. 11:30ean, Eusko Label produktuen dastaketa.**



Urriaren 1ean, 18:30ean, Plateruenean

Aikoren Dantzaldi Ibiltaria

Ikasturte berriari ekingo diote dantzazaleek, martitzenean, Durangoko Plateruenean. Aiko Taldearen eskaintza zertan datzan ikusteko, proba egiteko, aukera izango da urrian.



:: DURANGO | ZUGAZA

1. aretoa:

Las brujas de Zugarramurdi

Zuzendaria: Álex de la Iglesia

- barikua 27: 19:30/22:00
- zapatua 28: 19:30/22:30
- domeka 29: 19:00/21:30
- astelehena 30: 18:30/21:00
- martitzena 1: 20:00

Justin y la espada de valor 3D

Zuzendaria: Manuel Sicilia

- zapatua 28: 17:00
- domeka 29: 16:45

2. aretoa: 2 guns

Zuzendaria: Baltasar Kormákur

- barikua 27: 19:30/22:00
- zapatua 28: 17:00/19:30/22:30
- domeka 29: 16:45/19:00/21:30
- astelehena 30: 18:30/21:00
- martitzena 1: 20:00

:: ELORRIO | ARRIOLA

Cine Invisible / Film sozialak

- zapatua 28: 22:30
- domeka 29: 20:00
- astelehena 30: 20:00

:: ZORNOTZA

Cruce de caminos

Zuzendaria: Derek Cianfrance

- barikua 27: 22:00
- zapatua 28: 22:30
- domeka 29: 20:00
- astelehena 30: 20:00

> ZORION AGURRAK

✉ zorionak@anboto.org
eguztieneko 14:00ak arteko epea



> Gure etxeko printzesak urtetxo bat bete eban atzo. Zorionak familia guztiaren partez.



> Zorionak **Maddi**, amama Kontxi ta aitite Pedroren partez. Asko maite zaitugu.



> Zorionak **Haizea!** Hamaika urte bete dozuz. Ondo pasa zure eguna!



> **Garazi Ugartek** 7 urte beteko ditu irailaren 29an. Zorionak Garazi! Zeinen handia egin zaren! Beti bezain alai jarraitu.



> **Udane**, 6 urte bete dituzu irailak 24an. Zorionak etxeko guztien partez, eta bereziki Luken zure neba jairo berriaren partez. Beti bezain maitagarri jarraitu dezazula espero dugu. Muxu handi bat familia osoaren partez.



> Zorionak alproja parie! Domekako bazkarixe ona egon zan, baina orain hasi itsulapikoa betetzen datorren urtekue hobeia izan daitten.



> Zorionak **Urko!** Urtebetetxo bat egingo duzu datorren urriaren 1ean. Muxu handi bat Jone, Unax, amatxo eta aitaixon partez! Muuuu!



> **Jone Iturrietak**, hilaren 26an, 10 urte beteko dauz. Ixurretako amama Mari Jose, eta Durangoko lehengusu eta izeko-osaben partez, zorionak! Oso ondo pasau egune lagunekin, Durangoko txokuen!



> **Carmen Linares**ek 35 urte beteko ditu irailaren 28an. Zorionak polit hori! Ongi pasatu zure urtebetetze eguna, eta xanpain frantses botila bat edan ezazu!



> Elorrioko eta Durangoko koadrila honek Urkiolan atera genuen argazkia, hilaren 18an. Gerediak eta Durangaldeko nagusien Bizidun elkarteak antolatuta, Maumetik Otxandiora joan ginen, ardoaren eta arrainaren ibilbidea eginez. Jon gidariak lagunduta, egun zoragarria izan zen.



Jose Antonio Agirre, 4
946 200 869
Avda. Montevideo, 1
946 204 383

> Zorionak Izar Bengoa! Hamabostean behin zotz egin dugun tarta zuei egokitu zaizue. Oparia eskuratzeko txartela gura duzuenean jaso dezakezue, lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.

> BOTIKAK

- BARIKUA, 27** - 09:00-09:00
• **IRIGOEN** (BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA)
- ZAPATUA, 28** - 09:00-09:00
• **BAZAN DIAZ** (URIBARRI 5 - DURANGO) 09:00-13:30
• **UNAMUNZAGA** (MURJETATORRE 2C - DURANGO)
• **CAMPILLO** (MONTEBIDEO 24 - DURANGO)
• **NAVARRO** (ARTEKALE 6 - DURANGO)
• **BALENCIAGA** (EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO)
• **SAGASTIZABAL** (ASKATASUN ETORB. 19 - DURANGO)
• **DE DIEGO** (INTXAURRONGO 22 - DURANGO)
• **LARRAÑAGA-BALENTZIAGA** (BERRIO OTXOA 6 - ELORRIO)
• **URIZAR** (GABIOLA 2 - BERRIZ) 09:00-14:00
• **IRIGOEN** (BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA) 09:00-22:00
• **EGUREN, ISABEL** (TRAÑABARREN 15 - ABADIÑO)
- DOMEKA, 29** - 09:00-09:00
• **UNAMUNZAGA** (MURJETATORRE 2C - DURANGO)
- ASTELEHENA, 30** - 09:00-09:00
• **BALENCIAGA** (EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO) 09:00-22:00
• **LOPEZ DE ARETXAGA** (TORRESOLO 4 - ABADIÑO)
- MARTITZENA, 1** - 09:00-09:00
• **CAMPILLO** (MONTEBIDEO 24 - DURANGO)
- EGUAZTENA, 2** - 09:00-09:00
• **DE DIEGO** (INTXAURRONGO 22 - DURANGO)
- EGUENA, 3** - 09:00-09:00
• **MUGICA** (ANDRA MARIA 9 - DURANGO) 09:00-22:00
• **EGAÑA** (BEKOETXE 4 - ZALDIBAR)

> TELEFONO INTERESGARRIAK

- SOS Deiak 112
Gurutze Gorria **94 681 09 49**
Osakidetza **94 600 72 00**
Ertzaintza **94 466 93 00**





> GARRIAOK

- Euskotren **902 54 32 10**
Bizkaibus **94 448 40 80**
Pesa **902 10 12 10**
Continental Auto **945 286 466**

> TAXIAK

- Abadiño **94 681 44 70**
Matiena **606 459 988**
Durango geltokia **94 681 10 01**
Elorrio geltokia **94 682 00 40**
J.L. Uriarte **670 402 002**
I. Estebez **670 678 273**
M. Galeano **670 409 330**
Iurreta taxi auzunea **688 618 690**
Berrizko auzo taxia **620 022 800**

> EGURALDIA

16° 25° ZAPATUA 	13° 21° DOMEKA 
13° 25° ASTELEHENA 	17° 24° MARTITZENA 

> UDALAK

- Abadiño **94 621 55 30**
Atxondo **94 682 10 09**
Berriz **94 682 45 84**
Durango **94603 00 00**
Elorrio **94 658 27 12**
Garai **94 681 63 93**
Iurreta **94 620 12 00**
Izurtza **94 681 35 48**
Mallabia **94 317 14 61**
Mañaria **94 681 89 98**
Otxandio **94 545 00 20**
Zaldibar **94 682 70 16**

> UDALTZAINGOA

- Abadiño **94 621 55 33**
Berriz **94 682 40 36**
Durango **94 603 00 00**
Elorrio **94 682 02 18**
Iurreta **94 620 08 88**

> AZOKA-BASERRITIK-PLAZARA



Abadiño (Traña-Matiena)
Eguaztenetan
10:00etatik aurrera
Durango
Zapatu goizetan
Zornotza
Domeka goizetan

ASTEKO SALNEURRIAK:

- Letxuga **0,80 euro**
Letxuga haritz hostoa **1 euro**
Azelga **2 euro/kg**
Espinaka txorta **1,20 txorta**
Berakatz freskoa **1,50 txorta**
Illarrak **6 euro/kg**
Tomate kontserba **3,90 euro/potea**
Arrautzak **3,80 euro/dz**
Idiazabal gazta **17 euro/kg**
Gari integraleko ogia **3,30 euro**

“Adrenalina baino erlaxazioa da airean sentitzen duzuna”

Duela hiru hartu zuen lehenengoz parapentea. Gustura dabil; 2014an txapelketetan hasi gura du

> AMAIA UGALDE

Zapatu arratsaldea. Eguraldi ederra kalean patxadaren egoteko. Udalaitez ingurura begiratu, eta han txori berezi bi hegan, bata oiha gorri bategaz, bestea berde bategaz. Euretako bat da Gorka Uribe. Parapentearen munduan dabil azken urteotan.

Noiztik zabilta parapentean? Orain dela hiru urte inguru Berrizko lagun batekin berbetan hasi, eta ikasteko asmoz Urduñara joatera animatu ginen. Han Euskal Parapente Eskola dago. Euskal Herrian Sopenan, Gasteizen eta Urduñan dago ikasteko aukera.

Arinago probatuta zeneukan parapentea?

Ez, inoiz ez, baina gogoa edukit dut aspalditik. Surf egitera joaten nintzen Sopelara, eta han jende pilo bat ikusten nuen parapentean, eta esaten nuen: “inoiz ikasi behar dut, bada!”.

Zelakoa izan zen lehen aldia? Urduñakoa ikusgarria da. Aurreratze eremura joatea, eta handik Urduña, kristoren bailara ikustea, itzela da. Lehenengo aldian, nerbio handiak: “Ostras! Hemendik hegan egin behar dugu?”. Baina gero, urduritasun horiek kendu egiten dira, eta ondo sentitzen zara. Oso erraza da, segurua da, eta asko disfrutatzen da. Ez da adrenalina, erlaxazioa da, eskuinera joan gura baduzu, eskuinera, ezkerredera gura baduzu, harantz...

Erraza egin zitzaizun ikastea? Beno, urtebetera nahiko ondo nentzela, eta bakarrik ibili nintekeela esan zidaten. Ikastaroak ez du denbora finko bat

izaten, norberak behar duena baino. Bigarren urtean titulua ateratu nuen.

Hegaldi asko egin dituzu orain artean?

Urte honetan sarri ibili naiz. Udalaitez ere hasi naiz. Iñigo Gabiria ere ezagutu dut, eta Durangaldeko jendeagaz ibiltzen naiz. Hurrengo urtean plaza biko parapente ikastaroa egiteko asmoa daukat, eta Liga Norte txapelketara joateko asmoa ere bai. Hor asko ikasten da, eta leku ugari egiten da hegan.

Orain arteko zein leku gustatu zaizu gehien?

Orain Udalaitez asko gustatzen zait. Aurten hasi naiz handik bajatzen, eta kristoren paisaia dago: Anboto, Oiz, kostaldea... ikusten dira-eta. Itzela da. Uztailean Alpeetara joan nintzen, eta jaitsiera bat egin nuen. Goizean goiz joanda, 1.000 metroko desnibelagaz, ordu laurden inguruko jaitsierak izaten dira. Bajatzean Mont Blanc mendia daukazu aurrean, eta oso polita da. Eguraldi ona egin zigun, eta oso ondo pasatu genuen.

Badaukazu hegaldi bereziren bat egiteko asmorik?

Gustatuko litzaidake Udalaitez irten, Anbotorantz joan, gero Udalaitezera bueltatu, Kurutzeberrira, Arrasate albora joan... Horrelako ibilbide bat. Oraindik ez dut zeharkaldirik egin, eta gogoa daukat. Normalean Udalaitez aurreratzea 600 metrotik egiten dugu, eta gero, gailurrerantz joan zaitezke korronte termikoa hartuta. Berez 1.400 metroan daukagu topea, baina asko igotzea arriskuetsua izan daiteke hegazkinak horrelako altueretan ibiltzen direlako.

Estualdirik pasatu duzu?

Bada, bai. Behin, Udalaitez. Ipar-mendebaldeko haizea zegoen batean. Gorantz igo nintzen, eta gailurrera joatea pentsatu nuen. Haizea nahiko gogor zebilen, eta ezin nuen aurrerantz egin. Bajatzen banenbilen ere, ikusten nuen ez nintzela lur hartzeko lekura heltzen. Landatxo bat ikusi nuen, eta han egin nuen lurrreratzea, harrobi ondoan. Txarrena izaten da tolestura bat edukitzea, orduan larraldietarako paraxuta zabaldu behar duzu, baina hori ez dut inoiz egin.

Haizeari begira ibiliko zara asko.

Noski, erdi meteorologoak gara! Haizea eta korronte termikoa ezagutu behar dituzu. Orain urri amaierara arte jarraituko du denboraldiak. Neguan ere egin daiteke, baina gu-

txiago, haize gogoragoak egoten dira eta.

Iñigo Gabiria elorriarra Alpeetan izan da Red Bull Alps lasterketan. Zer iruditzen zaizkizu horrelako probak?

Lehiaketa oso fisikoa da. Parapentearekin gora igo behar duzu oinez, batzutan 90 kilometro gailurrera, eta handik aireratu. Munduko probarik gogorrenetakoa da.



LAUHORTZA

MARISA BARRENA



Dendak Bai

Udagoienarekin batera inguruko jai giroan murgildu gara. Iurretakoak amaitu, eta Durangokoak helduko zaizkigu. Aurten, besteak beste, Dendak Bai elkarteok bere protagonismoa izango dute San Fausto jaietan, txupinero izateko hautatu baititu jai batzordeak. Pozik agertu da Guillermo Oarbeaskoa Dendak Bai elkarte arduraduna, izendapen hori hiru hamarkadatan egindako lanaren aitortutzat hartuta.

Pozik egotekoa da, ohorea eta aitortzea da-eta norbere herrian txupinero izatea. Izan ere, supermerkatu handiak agertu eta hedatu direnetik, gure dendari txikiak baztertu eta gorriak ikusten ari baitira, eta izendapen hori erosleon kontzientzia zirikatzeke aukera bikaina izan daiteke.

Dena den, nire belarrietara heldu den informazioa benetakoa bada, behintzat, laster batean, datorren urtarril edo otsailean, dagoeneko supermerkatu bi dituen kate handi batek hirugarren bat zabalduko du trenbide gunean, Durango erdian, eta horrek ez die putz handirik egingo gure dendak txikien salmentei.

Hori bai, kate handiek, betiko moduan, lanpostuak sortzen dituztela esango digute. Lanpostuak sortu bai, baina zenbat desagertuko dira? Zenbat denda txiki itxi beharko ditu ateak?

Egia esan, ez dakit Dendak Bai elkarteak zer esango duen pregoian, baina nago irrintzi eta aldarrikapen indartsu bat bota beharko lukeela gure herrian supermerkatu gehiago zabaldu ez dadin. Horretan, baimekak emateko araudia egiten dutenek erantzukizun handia dute, baina erosleon esku dago denda mota aukeratzea. Nire iritziz, auzoan erosten badugu, bizitza emango diogu gure herriari, eta gainera, lanpostu gehiago eta lan duinagoa izango dute langileek.

